

# memoria **08**

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua



**ARGITARATZAILEA:**

Vitoria-Gasteizko Udala  
Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)


# memoria 08

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala





## AURKIBIDEA

<b>01</b>	<b>2008KO LANKIDETZAREN IKUSPEGI OROKORRA</b>	<b>9</b>
01.1	ZEREGINA ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK	10
01.2	JARDUERA-ARLOAK	10
01.3	AURREKONTUA PARTIDA NOLA GAUZATU DEN: DATU OROKORRAK	11
	Aurrekontu orokorra	11
	Diru-laguntzak	12
<b>02</b>	<b>LANKIDETZA ARLOA</b>	<b>15</b>
02.1	DESKRIBAPENA, HELBURUAK ETA AZPI-PROGRAMAK	16
02.2	HAINBAT URTERAKO PROIEKTUETARAKO 2007KO DEIALDIA	17
02.3	LANKIDETZARAKO URTEKO DEIALDIA	21
02.4	GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO DEIALDIA	25
02.5	SAHARAKO HERRIAREKIKO LANKIDETZA ETA ELKARTASUNA	27
02.6	EUSKAL FONDOAREKIKO HITZARMENA	29
02.7	AGADIRREKIKO (MAROKO) HITZARMENA	30

<b>02.8 LARRIALDIETARAKO ARABAKO FUNTSA</b>	<b>31</b>
El Salvadorrera materiala bidaltzea	31
<b>02.9 GASTEIZKO UDALAREN LANKIDETZAREN DATU NAGUSIAK</b>	<b>32</b>
Lankidetzaren eta gizaldekoko ekintza	32
Herrialdeen arabeko banaketa	32
Geografi eremuen arabeko banaketa	33
<b>02.10 BALIOESPENA</b>	<b>34</b>
<b>03 SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA</b>	<b>35</b>
<b>03.1 DESKRIBAPENA, HELBURUAK ETA AZPI-PROGRAMAK</b>	<b>36</b>
<b>03.2 DIRU-LAGUNTZA DEIALDIAK</b>	<b>37</b>
Deialdia: "Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuak finantzatzea"	37
Deialdia: "Gasteizen burutzeko diren nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jarduerak finantzatzen laguntzea"	38
<b>03.3 LANKIDETZA-HITZARMENAK</b>	<b>40</b>
SETEM-Hego Haizearekiko hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko	40
Mugarik Gabe erakundearekiko hitzarmena, zinema eta lankidetzari buruzko XIV. erakusketarako	42
EAE-ko GGKE-en koordinakundearen Arabako ordezkariarekiko hitzarmena "Giza eskubideen karabana. 2008ko ibilbidea" Arabako abokatuen elkargoarekiko hitzarmena	43
Bakeaz koadernoak argitaratzeko hitzarmena	43
"Oporrak bakean" programarako hitzarmena	44
Setem hego haizearen prestakuntza programarako hitzarmena, 2008/2009 ikasturtea	44
<b>03.4 INFORMAZIOA, ZABALKUNDEA ETA PRESTAKUNTZA</b>	<b>45</b>
"Gobernagarritasuna, parte hartzea eta toki garapena Guatemalan: lankidetzaren deszentralizatuaren zeregina" mintegia	45
"Lankidetzaren irudietan" IV. argazki lehiaketa	46
"Koopera" dokumentala ekoiztea	47
Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren XX. urteurrena	47
Gasteizko Udaleko gazteria zerbitzuarekiko elkarlana	47
Udal kazetan artikulatuak argitaratzea	48
Lankidetzari buruzko udal web-orria	49
Bestelako informazio ekintzaketa beste	49

<b>03.5 LANKIDETZARAKO KONTSEILUA</b>	<b>49</b>
Kontseiluaren jarduna	49
Garapenerako Kontseiluarentzako ikerketetara bideratutako aurrekontua	50
<b>03.6 BISITALDIAK</b>	<b>50</b>
<b>03.7 SENTSIBILIZAZIO PROGRAMAREN AURREKONTUA</b>	<b>52</b>
<b>03.8 BALIOESPENA</b>	<b>53</b>
<b>04 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>	<b>55</b>
<b>04.1 URTEKO LANKIDETZA PROIEKTUEN LEHEN EBALUAZIOA</b>	<b>56</b>
<b>04.2 KUBAKO PROIEKTUEN JARRAIPENERAKO BISITALDIA</b>	<b>56</b>
<b>04.3 AGADIRREKO PROIEKTUEN JARRAIPENERAKO BISITALDIA</b>	<b>57</b>
<b>04.4 PAITAREKIKO HITZARMENAREN JARRAIPENA KONTRATATZEA</b>	<b>57</b>
<b>04.5 URAREN ALORREKO BI PROIEKTU KONTRATATZEA, GUATEMALAN</b>	<b>57</b>
<b>04.6 2008AN BERTATIK BERTARA EGINDAKO BI EBALUAZIOEN EMAITZAK</b>	<b>58</b>
<b>04.7 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO BALIATUTAKO AURREKONTUA</b>	<b>58</b>





# 01

## 2008KO LANKIDETZAREN IKUSPEGI OROKORRA

## 01.1 Zeregina eta helburu estrategikoak

Gasteizko Udalak garapenerako ematen duen laguntza kudeatzea da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina. Izan ere, aspalditxo erabaki zuen udalak bere aurrekontuen %1 herrialderik txiroenei garapenean laguntzeko eta gasteiztarren artean haienganako elkartasuna sustatzeko baliatzea.

Aurrekontu partida horren kudeaketaz harago, helburu hauek ditu Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak:

- Gasteizko gizatalde eta GGKEek esku hartzen duteneko elkartasun eta garapen jardueretarako laguntza ematea.
- Garatze bidean dauden herrialdeetako garapen-esperientzietan laguntzea, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik, hartara lekuan lekuko erakunde demokratikoak eta herritarren parte-hartzea sendotzeko.
- Gasteizko GGKEen eta garatze bidean dauden herrialdeetako arteko lankidetzak eta elkartasun loturak sendotzeko aukera eskaintzea.
- Gasteizko Udalak esku hartzen dueneko lankidetzak proiektu eta programen kalitatea hobetzea.

## 01.2 Jarduera-arloak

Gasteizko Udalaren esku hartzea, garapenerako lankidetzaren esparruan, bi arlo osagarri eta aldi berean bereizitako gauzatzen da:

- **lankidetzak**, zentzurik zabalenean harturik, hau da, garatzen ari diren herrialdeetarako garapenerako laguntza, giza laguntza nahiz giza eskubideak babesteko jardueretarako laguntza; hots, "hegoaldeko ekintza".
- **sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza**, zentzurik zabalenean harturik, hau da, gure hirian herrialde horietako herriekiko elkartasuna sustatzen duten esku hartzeak; hots, "Gasteizko ekintza".

Honela gauzatzen da udalaren esku hartze hori:

- **Lankidetzari** dagokionez, funtsean, garatzen ari diren herrialdeetan bideratzekoak diren proiektuetarako –lankidetzak proiektuetarako nahiz giza laguntzaren alorrekoetarako– ematen diren laguntza ekonomikoen bitartez, baina baita, inoiz, udal zerbitzuetatik lankidetzak proiektu jakin baterako edo besterako laguntza teknikoak emanez ere.
- **Sentsibilizazioari** dagokionez, dela garapenaren alorrean hainbat erakundek bideratzen dituzten informazio, sentsibilizazio eta hezkuntza proiektu edo ekintzetarako diru-laguntzak emanez, dela Garapenean Laguntzeko Zerbitzutik bertatik edo beste udal zerbitzu batzuetatik halako ekintzak bideratuz.
- **Identifikazioaren, jarraipenaren eta ebaluazioaren** alorreko beste hainbat ekintza dakartza horrek guztiak berekin, hala nola, egin beharreko ekintzak hautatzeko zereginak, nola gauzatzen diren egiaztatu eta kontrolatzea eta, gutxiagotan bada ere, onetsi eta gauzatu ondoren, helburuak zenbateraino bete diren eta nolako eragina izan duten aztertu eta balioestea (bai lankidetzaren arloan, bai sentsibilizazioarenean).

## 01.3 Aurrekontua partida nola gauzatu den: datu orokorrak

### Aurrekontu orokorra

Gasteizko Udalak garapenean laguntzera bideratutako aurrekontua, 2008. urtean, 2.957.727,00 eurokoa izan zen, esan nahi baita onetsitako udal aurrekontuaren %0,84.

Kapitulua	2008ko aurrekontua (€)
II. kapitulua (kanpoko zerbitzuak)	124.000,00
IV. kapitulua (lankidetzarako diru-laguntzak, hainbat urterako konpromisozko kredituak)	1.131.000,00
IV. kapitulua (gainerako diru-laguntzak)	1.702.727,00
<b>Lankidetzara, guztira</b>	<b>2.957.727,00</b>

Onartutako aurrekontua

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 10.000 euroko transferentzia bat jaso zuen, giza eskubideen karabana egiteko; hori dela eta, ondorengo laukian ageri direnak dira aurrekontua gauzatzeari buruzko datuak:

Kapitula	2008ko aurrekontua (benetakoa)	Gauzaturia	%
2. kapitulua	124.000,00	111.338,95 €	89,8
4. kapitulua. Hainbat urterakoak	1.131.000,00	900.832,58 €	79,6
4. kapitulua. Gainerakoa	1.712.727,00	1.712.697,02 €	100,0
<b>Guztira</b>	<b>2.967.727,00</b>	<b>2.724.868,55 €</b>	<b>91,8</b>

Gauzaturako aurrekontua

Gauzate ehunekoa beste urte batzuetakoa baino baxuagoa izan zen, bi arrazoi hauen ondorioz:


- hainbat urterako proiektuetarako diru-laguntzak ez ziren iritsi aurreikusitako zenbatekora,
- kontuan izanik 2008an udalaren diru-sarrerak murriztu egin zirela, eta TEFF<sup>1</sup>ari ddirua itzuli behar izan zitzaioela, geldikin hori ez zitzaien gehitu lankidetzarako partidei.

<sup>1</sup> Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtza (Arabako Foru Aldundia).

Aurrekontu osoaren (diru-laguntzak eta kontratazioak) banaketa, zerbitzuaren hiru programa nagusien artean, zein baitira:

- garatzen ari diren herrialdeetako lankidetzak ("hegoaldean jardutea")
- sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza ("Gasteizen jardutea")
- eta proiektuen ebaluazioa, jarraipena eta identifikazioa, hauxe izan zen:

LANKIDETZARAKO AURREKONTUA (2008), ARLOZ ARLO



- Lankidetzak, gizaldekoko ekintza eta larrialdiak
- Sentsibilizazioa eta G.H.
- Jarraipena, ebaluazioa eta ikerketak


Arloak	2008ko aurrekontua (€)
Lankidetzak, gizaldekoko ekintza eta larrialdiak	2.347.305,20
Sentsibilizazioa, G.H., ikerketak eta elkartrukeak	351.242,43
Jarraipena, ebaluazioa	26.320,92
<b>Guztira</b>	<b>2.724.868,55</b>

## Diru-laguntzak

Garapenerako lankidetzaren aurrekontuaren %96 diru-laguntzek hartzen dute. Hori dela eta, aparteko garrantzia du zertarako baliatzen diren eta nola kudeatzen diren zehazteak.

Ondoren adierazten den bezala banatzen dira hiru arlo handietan, zein baitira lankidetzak, gizaldekoko ekintza (larrialdiak eta giza eskubideen babesa barne), eta sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza:

2008ko DIRU-LAGUNTZAK, ARLOZ ARLO




- Lankidetzak
- Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza
- Gizaldekoko ekintza, larrialdiak eta giza eskubideen babesa

Kontuan izanik Larrialdietarako Arabako Funttsaren laguntzak ia beti GGKEek kudeatzen dituztela<sup>2</sup>, diru-laguntza guztien %88,5 GGKEek administratu dituzte, eta %11,5 Euskal Fondoak. Banaketa horretan islatuta ageri da udalak ez zuela 2008. urtean zuzeneko lankidetzak hitzarmenik izanpetu.

<sup>2</sup> Zenbaitetan hegoaldeko erakunderen batek kudeatzea ere posible den arren.


Larrialdietarako Arabako Funtsaren funtzionamendua Arabako Foru Aldundiarekin eta Vital Kutxarekin izenpe-tutako hitzarmen bati zor bazaio ere, bereizi egin dugu diru-laguntzak emateko prozedura. Izan ere, funtsari berari ematen zaizkio diru-kopuruak, eta hark, gerora, larrialdi egoeretan esleitzen. Nolanahi ere, Gasteizko Udalak 2001ean onetsitako "lankidetzaz-hitzarmenak onartzeko oinarrietan" berariaz adierazten den %30eko muga errespetatu da, are gehiago kontuan izanik sentsibilizazioarako hitzarmenek pisu handia bereganatua dutela.

2008ko DIRU-LAGUNTZAK: zeinek kudeatzen dituzten



■ GGKE  
■ Euskal Fundoa

2008ko DIRU-LAGUNTZAK: nola eman ziren



■ Deialdiak  
■ Hitzarmenak  
■ Arabako Funtza

Deialdiak	1.700.885,77
Hitzarmenak	729.588,55
Larrialdietarako funtsa	183.055,28
<b>Guztira</b>	<b>2.613.529,60</b>

Diru-laguntzak: arloak	Euroak
Lankidetzaz	1.833.027,58
Gizaldekoko ekintza, giza eskubideak eta larrialdiak	512.522,20
Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza	267.979,82
<b>Guztira</b>	<b>2.613.529,60</b>



# 02

## LANKIDETZA ARLOA

## 02.1 Deskribapena, helburuak eta azpi-programak

Arlo hau zehazterakoan garapenerako lankidetzak zentzu zabalenean hartzen dugu, bere baitan hartzen dituelarik bai garatzen ari diren herrialdeetako garapen-ekintzetarako laguntzak, bai gizaldeko laguntzak, bai giza eskubiak babesteko ematen direnak.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina hau da: garatzen ari diren herrialdeetako proiektuetarako urtero ematen diren diru-laguntzak onesteko proposamena egitea eta horiek gauzatzen direla bermatzea, eta, inoiz, udal zerbitzuetatik zenbait proiekturi ematen zaien laguntza tekniko koordinatzea.

Hauk dira arlo honetako helburuak:

- Hiru motatako jarduera edo proiektuetarako laguntzak ematea, Gasteizen aktibo dauden erakunde eta GGKEak tartean direlarik: garapenerako laguntzak, giza eskubiak babesteko laguntzak eta larrialdietako laguntzak.
- Garatzen ari diren herrialdeetako garapen-esperientzietan laguntzea, hartara lekuan lekuko gaitasunak, tokiko erakunde demokratikoak eta herritarren parte-hartzea sendotzeko.
- Lankidetzak-ekintzen kalitatea hobetzea, hiriko talde eta profesionalak horietan murgilaraziz; bereziki, udal zerbitzu tekniko espezializatuak.

Deialdiak eta hitzarmenak dira garapenerako lankidetzak bideratzeko baliatzen diren tresna edo azpi-programak.



Argazkia: MIKEL ARRAZOLA

Azpi-programa	€
<b>Garapenerako lankidetzak</b>	
Hainbat urterako proiektuetarako deialdia, 2008	900.832,58
Lankidetzarako urteko deialdia	500.000,00
Euskal Fondoarekiko hitzarmena	300.000,00
Saharako herriarekiko lankidetzak eta elkartasuna	250.000,00
Agadirrekiko hitzarmena (TdH)	56.000,00
<b>Gizaldeko ekintza, giza eskubiak eta larrialdiak</b>	
Giza eskubiak babesteko deialdia	200.744,97
Larrialdietarako Arabako Funtse <sup>1</sup>	183.055,28
<b>Guztira</b>	<b>2.613.529,60</b>

Lankidetzaren arloko azpi-programetako bakoitzari, hau da, deialdi edo hitzarmen bereizi bakoitzari buruzko oinarriko informazioa eskaintzen da ondoren; azken ata-lean, berriz, datu orokorrak ageri dira.

<sup>1</sup> Larrialdietarako Arabako Funtseari egindako ekarpen handixko hori dela eta, 2009erako ez da aurreikusten besterik, deialdietan egokitu litezkeen soberakinak salbu.



## 02.2 Hainbat urterako proiektuetarako 2007ko deialdia

Gasteizko Udalaren lankidetzeta programa nagusia dugu garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako deialdia –aldeaz aurretik “hainbat urterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia” egiten da–. 2007an hirugarren aldia zen deialdia egiten zela (2008an bukatzen zen aurkezteko epea), eta 1.131.000 €-ko dirukopurua bideratu zen horretara, lau urterako, konpromisozko kredituen bitartez bermaturik.

13 proiektu aurkeztu ziren deialdi horretara. Edateko ura hornitzeko bi proiektu baztertu egin ziren: kasu batean, AMVISAren txosten teknikoak adierazten zuen emandako informazioa ez zela nahikoa, eta ez zuela proiektuaren bideragarritasun teknikoa balioesteko aukerarik

ematen, eta bestean, berriz, proposatutako konponbideak, kostua handia izanik ere, nahikoa ur hornituko zenik ez zuela bermatzen. Orobat baztertu ziren “emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen laguntzen duten proiektuen” kategoria berezian sartzen ziren bi proiektu, betebeharrerako bat, zein baitzen emaitza nabariak izatea (honela zegoen adierazia deialdian: “Proiektuen emaitzetako zati adierazgarri bat nabaria izan beharko da, adibidez: azpiegituren sorkuntza, herritarrei zuzendutako zerbitzuak martxan jartzea edo garatzea, zerbitzuak emateko azpiegiturak sortzea”). Lau proiektu horiek baztertzeko berekin ekarri zuen urtean emandako dirukopurua, guztira, onetsitako konpromisozko kreditua baino txikiagoa izatea.



Argazkia: MIKEL ARRAZOLA

Ondorengo taulan adierazten diren proiektuak onetsi ziren:

Kodea	Proiektua	Herrialdea	GGKE	Diru-laguntza	
				2008	Guztira
<b>08-P-01 ARG</b>	<b>Familia nekazaritzan ingurumenaren iraunkortasunerako teknologia egokiak erabiltzea Carolinako landa eremuan</b>	<b>Argentina</b>	<b>ADSIS</b>	<b>84.983,73</b>	<b>449.046,57</b>

Carolina Rural-eko (Florencio Varela, Buenos Aires, Argentina) komunitatearen garapen iraunkorrean lagundu nahi du proiektuak, ingurumenarekiko begirunea eta genero berdintasuna kontuan izanik.

Horretarako, hiri helburu finkatu dira, ekoizle txikiei baliabide naturalen erabilera iraunkorraren inguruko sentsibilizazioa eta pres-takuntza eskaini nahirik:

- hezkuntza eta teknologi berrikuntza
- familien eta komunitatearen garapen sozioekonomikorako prozesuak abian jartzea
- eta eskualdeko politika publikoetan eragitea, baliabideak zentzuz eta modu iraunkorrean erabiltzeari dagozkionetan.

<b>08-P-02 BOL</b>	<b>Boliviako Andeetako landa eremuko komunitateen bizitza osasungarrirako eta garapenerako ur segurua</b>	<b>Bolivia</b>	<b>ADRA</b>	<b>85.879,19</b>	<b>355.691,49</b>
------------------------	---	----------------	-------------	------------------	-------------------

Urarekin lotura estua duten gaixotasunei aurre egin eta halakoak galarazteko aukera emango duen edateko uraren sistema diseina-tu, gauzatu, kudeatu eta komunitatearen esku uztea da helburua. Ayo Ayo, Patacamaya, Batallas, Laja eta Viacha de La Paz (Bolivia) herrietako 420 nekazari-familiaren osasun eta bizitza kalitatea hobetzeko aukera emango du horrek.

Honako hauek dira, besteak beste, "gaixotasuna - pobrezia - heriotza" zikloa hausteko aukera emango duen proiektu horrek bere baitan biltzen dituen esku-hartzeak: edateko ura eskura jartzea, osasun hezkuntzaren alorrean gaitzea, komunitatea sendotzea...

Proiektua burutzean herritarrak higienaren alorreko ezagutza, jarrera eta jokabideetan jantziago egotea espero da, baita edateko uraren erabilera egokiari, beren osasuna eta nutrizioa zaintzeari eta instalatutako edateko uraren sistemen kudeaketa eta manten-tze iraunkorrari dagozkienetan ere.

<b>08-P-03 BOL</b>	<b>Tokiko garapen integral, parte-hartzezko, iraunkor eta genero berdintasunezkoaren kudeaketa sendotzea Tiquipaya udalerrian</b>	<b>Bolivia</b>	<b>Bakea eta Elkartasuna</b>	<b>116.889,85</b>	<b>471.560,28</b>
------------------------	---	----------------	------------------------------	-------------------	-------------------

Tiquipaya udalerrian garapen lokala, iraunkorra, genero-berdintasunezkoa lortzen lagundu nahi da proiektuaren bitartez, garapen lokal iraunkorraren alorreko politika publikoak definitu eta modu parte-hartzailean kudeatzen lagunduz, kultur ikuspegi eta identitate propioa abiapuntutzat harturik.

Lau urteetan honako hauek egin nahi dira:

- Hiri Antolakuntzarako Plan bat taxutu, modu parte-hartzailean.
- Gaitasun tekniko eta politikoak sendotu, eta indigena nekazarien antolakunde mistoek eta emakumeenek udalerriaren garapen lokalean duten eragina areagotu.
- Udal agintari eta funtzionarioek lurralde kudeaketaren alorrean duten gaitasun teknikoak sendotu.
- Garapen proiektu estrategikoak formulatu eta gauzatu.

Beti ere genero ikuspegia aintzat harraraziz.

Kodea	Proiektua	Herrialdea	GGKE	Diru-laguntza	
				2008	Guztira
<b>08-P-04 CHA</b>	<b>Pendé probintzian emakumeen gizarte eta ekonomia bazterketa murrizten laguntzea eta emakumeen eskubideekiko errespetua sustatzea</b>	<b>Txad</b>	<b>Intermón Oxfam</b>	<b>123.861,00</b>	<b>506.872,00</b>

Proiektuaren bitartez Pendé probintzian (Txadeko eremu isolatu bat) emakumeen gizarte eta ekonomia bazterketa murrizten lagundu nahi da, eta emakumeen eskubideekiko errespetua sustatu. Emakumeen eskubideak sustatu eta errespetarazteko zentro bat eraikiko da, "emakumeen etxea", eta honako hauek izango dira bertan:

- indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera egin, entzun eta aholkularitza eskaintzeko zerbitzu bat,
- alfabetatze eskolak,
- emakumeen eskubideei buruzko sentsibilizazio ekintzak (urtean bi bider),
- haurtzaindegi zerbitzua,
- inguruko nekazaritza produktuak eraldatu eta merkaturatzeko prestakuntza emateko lantegi bat eta programa bat,
- biltegi bat eta erosketak batera egiteko sistema bat, zentroaren mende egongo dena, zeinek nekazaritza produktuak antolatu eta gordetzeko aukera emango baitu, eta horiek merkaturatzeko eraldatu ahal izatekoa, hartara emakumeen diru-sarrerak areagotzeko.

Emakume antolakuntzen sare lokalak kudeatuko du zentroa.

<b>08-P-05 ECU</b>	<b>Guamote eta Colta kantoietan nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizleen giza garapen iraunkorra sustatzea</b>	<b>Ekuador</b>	<b>Setem Hego Haizea</b>	<b>107.268,23</b>	<b>459.299,71</b>
------------------------	--	----------------	--------------------------	-------------------	-------------------

Chimborazo probintzian, Guamote eta Colta kantoietan, nekazaritza eta abeltzaintza ekoizle txikien giza garapen iraunkorra sustatu nahi du proiektuak:

- gizarte-antolakuntzaren sendotuz
- giza garapena ahalbidetuz
- ekoizpenaren garapena bideratuz
- eta ekonomia solidarioaren eta bidezko merkataritzaren printzipioetan oinarritutako merkaturatze sistema bat ezarriz, genero berdintasuna eta ingurumenarekiko begirunea aintzat harturik.

Pobrezia eta migrazio tasak murriztu nahi dira hartara.

<b>08-P-06 GEC</b>	<b>Kogo barrutiko gizarte ehuna garatzea enplegua sustatuz, osasuna eta hezkuntza hobetuz eta gizarte sustapenerako guneak sendotuz</b>	<b>Ekuatore Ginea</b>	<b>Asociación Africanista Manuel Iradier</b>	<b>108.061,89</b>	<b>417.077,44</b>
------------------------	---	-----------------------	--	-------------------	-------------------

Cogoko barrutiko populazioaren bizi-baldintzak hobetu nahi dira proiektuaren bitartez, gizarte ehuna sendotuz. Lau jardueraildo ditu:

- Lehena, enplegu maila hobetzera zuzendua.
- Bigarrena, hezkuntza maila hobetzera zuzendua.
- Hirugarrena, osasun maila hobetzera zuzendua.
- Eta laugarrena, berriz, gizarte ehuna sendotzea helburu duten espazio soziokultural egonkorrek finkatzera zuzendua. Barrutiko gizarte sektoreen eta, bereziki, emakumeenaren gaitasunak areagotu nahi dira horretarako.

Kodea	Proiektua	Herrialdea	GGKE	Diru-laguntza	
				2008	Guztira
<b>08-P-07 HON</b>	<b>Jutiapa udalerriko edateko uraren eta saneamenduaren esparru programari laguntzea</b>	<b>Honduras</b>	<b>Serso Euskalherria</b>	<b>116.892,87</b>	<b>479.390,02</b>

2007. urtearen lehen erdian taxutu zen edateko uraren eta saneamenduaren programa orokorra garatu nahi da, Jutiapa udalerrian<sup>2</sup>. Edateko ura eskura jarri nahi zaie 15 herritako 10.000 bat pertsonari, eta orobat eskaini beharrezko diren iraunkortasun baldintzak: mikroarroen erabilera egokia, ur batzordeen antolaketa eta administrazio eta kudeaketa sistema egokiak, iraunkortasun ekonomikoa bermatuko duten tarifekin.

Jutiapako udalerriko ur zerbitzuen kalitatea kudeatu eta zainduko duen ur batzordea abian jartzen lagunduko da.

Onuradun izango diren herrietan eta udalerrri osoan ingurumenaren alorra jorratzea izango da proiektuaren parte handi bat.

<b>08-P-08 PER</b>	<b>Baliabide gutxiko gazteentzako unibertsitate aurreko ikastetxea</b>	<b>Peru</b>	<b>ADIPE</b>	<b>52.929,97</b>	<b>107.025,14</b>
------------------------	--	-------------	--------------	------------------	-------------------

Piurako eskola publikoetatik ateratzen diren diren gazteek ez dute prestakuntza egokia izaten unibertsitatean sartzeko, eta baztertuta geratzen dira lanbide-karrera bat ikasi eta ongizatea lortzetik. Unibertsitate-aurreko akademiek, garestiak izaki, ez diete inongo aukerarik ematen gazte pobreenei.

Pariñas elkarteak, komunitateak hala eskaturik, gazteen gizarte garapena sustatzen du, hezkuntzarako sarbidea eskainiz. Hauek dira helburuak:

- Piurako unibertsitate-aurreko zentroa antolatzea, urtero 540 gazte pobreri eguneratze akademikoa eta aholkularitza psikopedagogikoa nahiz bokazioen ingurukoa eskaintzeko.
- Liburutegi espezializatu eta informatika laborategia antolatzea, prestakuntza errazteko.
- Piurako eskola publikoetan matrikulatutako ikasleen %10i beka ematea, %60 emakumezkoiei eta %40 gizonezkoiei.

Eskaintzen dituen hezkuntza zerbitzuen bitartez baliabide propioak lortzea.

<b>08-P-09 PER</b>	<b>Huaycángo emakumearen etxea</b>	<b>Peru</b>	<b>Arabako Medicus Mundi</b>	<b>104.065,86</b>	<b>451.229,58</b>
------------------------	------------------------------------	-------------	------------------------------	-------------------	-------------------

Hauxe lortu nahi da proiektuarekin:

- Emakumeen oinarritzko hiru erakunde sendotu.
- Eskualdeko emakumeen elkarte bat sortu.
- Emakumearen etxea eraiki (CENDIPPen eta beste erakunde batzuen artean kudeatuko da).
- Sexu eta ugalketa osasunaren alorreko programa garatu (sexu bidez kutsatzen diren eritasunen prebentzioa, sentsibilizazioa, informazioa eta prestakuntza).
- Familiaren barruko indarkeriaren prebentziorako programa garatu.
- Diru-sarrerak sortzeko programa bat garatu (funtsean, lanbide eta enpresa prestakuntza eta kreditu sistemak eskuratzeko erraztasunak).
- Emakumeek gizartearen eta politikan parte har dezaten programa bat garatu.

Nagusiki eraikitzen den emakumearen etxea baliatuz garatuko dira programak, baina ez beti, neurri batean beste erakunde batzuekin koordinaturik egingo baitira.

<b>GUZTIRA</b>				<b>900.832,596</b>	<b>3.697.192,23</b>
----------------	--	--	--	--------------------	---------------------

<sup>2</sup> Jutiapako udalaren, bertako herritarren eta hainbat erakunderen –CARE, PASOS, AECl, SANAA (ur eta saneamendu gaiez arduratzen den estatu erakundea), SERSO HONDURAS– arteko aliantzaren baitan.

## 02.3 Lankidetzarako urteko deialdia

Hainbat urterako proiektuetarako deialdiak bereganatu duen munta dela eta, halako diru-laguntzarik eskuratu ez duten GGKEek aurkeztutako jarduera txikietarako laguntzak emateko aukera eskaintzen duen diru-laguntza programa bihurtu da urteko deialdia; 500.000,00 €-ko zuzkidura du, eta proiektu bakoitzeko gehienez ere 60.000 € ematen dira.

Egindako aldakuntzarik handiena hauxe izan zen: GGKEek eta hiriko etorkin taldeek proiektuak batera aurkeztea bultzatzeari ekin zitzaion, bi modutan egin ere:

- Malgutu egin zen erakunde bakoitzak deialdira eskabide bakarra aurkeztu ahal izango zuela esaten zuen muga, hauxe erantsiz: "salbu eta hiriko etorkin kolektibo baten jatorrizko lekuan egiteko proiektu bat aurkezten badute eta hartan zuzenean parte hartzen badu kolektibo horrek edo berorrekin harremanetan den elkarte batek".
- Era berean, lehendik hainbat urterako diru-laguntza jaso zuten GGKEek etorkin talderen batekin batera beste proiektu bat aurkezteko aukera eman zen.

15 GGKEk aurkeztu zituzten proiektuak 2008ko deialdira, guztira 15 proiektu. Eskatutako diru-kopurua, guztira, 630.203,65 €-koa izan zen, hau da, erabilgarri zegoena baino gehiago. Nolanahi ere, eskabideetako batek ez zituen betetzen oinarrietan finkatutako bi betebeharrak (presente eta aktibo egotea), eta ez zen aintzat hartu. Azkenik, puntuaziorik handienak lortu zituzten 11 proiektu lagundu ziren diruz.

Ez zen bete Saharaz behe-itiko Afrikari oinarrietan emandako lehentasuna. Izan ere, 2006. urtean diru-laguntzen %55 zuzendu ziren bertara, eta, oro har, %64 Afrika-ra; 2007ko deialdian, berriz, onetsitako funtsen %13,78 bakarrik bideratu zen eskualde horretara, eta 2008an,

azkenik, % 8,48. Hori, gehienbat, ez zaio zor aurkeztutako proiektuen kalitateari, aurkeztu ziren biak onetsi baitziren, ezta barematze sistemari ere, ia-ia 2006koaren eta 2007koaren berdina izan baitzen; kontua besterik da, hau da, bi eskabide bakarrik aurkeztu zirela Saharaz behe-itiko Afrikarako, aurreko urteko hiruren eta bi urte lehenagoko zazpien aldean.

Deigarria gertatzen da, aitzitik, Asiarako aurkeztutako proiektuek (bat Afganistanerako eta bi Indiarako) funtsen %25,52 hartu zutela.

Genero ikuspegia txertatzeari emandako lehentasuna ez zen aski islatu emaitzetan, oro har atal horretan lortutako puntuazioak oso apalak izan baitziren. Hala ere, onetsitako proiektuetako batzuk (3) berariaz edo nagusiki emakumeei zuzenduta zeuden, hiru horietako batek genero-ikuspegiaren atalean puntuazio apala lortu bazuen ere. Afganistanerako aurkeztutakoa nabarmendu daiteke.

Bigarren urtez, hiriko etorkin antolakunde batek, Kolonbia-Euskadi elkarteak, jatorrizko herrialdean garatzeko proiektu baterako diru-laguntza jaso zuen. Horrez gain, izan elkarteak Gambiarako aurkeztutako proiektua beste etorkin elkarte batekin zerikusia zuen ekimena zen, nahiz eta Gasteizen presente ez dagoen elkarte izan.

Etorkin elkarteak lankidetzaren eta baterako garapeneren esparruetan sartu izana berrikuntza kualitatibo interesgarria dugu; izan ere, beste herrialde batzuetatik etorritako hiritarrak dira, orain beren jatorrizko herrien garapenerako elkartasun eta lankidetzak ekintzak bideratzen hasiak direnak.

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

Kodea	Izena	Herrialdea	GGKE	2008ko diru-laguntza
<b>08-A-01 AFG</b>	<b>“Afghan Women’s Network” (AWN) emakume afganiarren elkarten sarearen eragiteko gaitasuna sendotzea</b>	<b>Afganistan</b>	<b>María de Maeztu forum feminista</b>	<b>40.200,00</b>
<p>Nagusiki Kabulen gauzatuko da proiektua. Emakumeen giza eskubideak gehien urratzen diren herrialdeetako bat da Afganistan, ia erabateko zigorgabetasunean urratu ere.</p> <p>Proiektuaren berriazko helburua emakume afganiarren elkarten sarearen eragiteko gaitasuna sendotzea da.</p> <p>Lau esparrutan espero da emaitzak lortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sarearen jarduerak aurrera eramateko behar diren materialak eta azpiegitura eskura jarri.</li> <li>• Proiektuen kudeaketari, ikerketa teknikei, monitorizazioari eta ebaluazioari buruzko ezagutza teknikoak hobetu.</li> <li>• Lobbyaren barne gaitasunen inguruko gogoeta egin eta ondorioak sistematizatu.</li> <li>• AWN erakunde afganiarren aurrean sustatu, generoaren alorreko gaietan eragin dezan.</li> </ul>				
<b>08-A-02 CAM</b>	<b>HIESaren kontra borrokatu eta osasun egitura sendotzea, Doualan (Kamerun)</b>	<b>Kamerun</b>	<b>Manos Unidas</b>	<b>49.400,00</b>
<p>Bi sorospen zentro hornitu nahi dira proiektuaren bitartez, GIBaren prebentzio eta tratamendurako eta haurdun dauden eta GIB eritasuna duten emakumeei eskaintzen zaien tratamendua areagotzeko, hartara kutsatuta jaiotzen diren haurren eta HIESa garatzen duten pertsonen kopuruak murrizteko, eta behar duten pertsonen antirretrobiralak banatu eta laguntza emateko.</p> <p>Horretarako, ekintza hauek aurreikusi dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• St. Albert Le Grand ospitalea handitu, pabilioi berri bat eraikiz, hartara GIBak eragindako herritarrei laguntza emateko, eritasuna hauteman, prebenitu eta tratatzeko programa integral baten baitan.</li> <li>• Ndogpassin (hiriaren iparraldean) artategi bat eraiki, Doualako eta inguruko populazioaren osasun prebentzioa eta estaldura areagotzeko, eta hartara heriotza tasak murrizteko.</li> </ul> <p>Zuzenean 19.000 onuradun izango direla aurreikusten da; horietatik 1.500ek antiretrobiralen bidezko tratamendua eskuratu ahal izango dute.</p>				
<b>08-A-03 COL</b>	<b>Arriskuetatik babesteko eta horiek murrizteko obrak, Ibagueko “Tierra Firme” auzoan (bigarren fasea)</b>	<b>Kolonia</b>	<b>Kolonia-Euskadi elkarte</b>	<b>47.300,00</b>
<p>347 familiari etxebizitza duina edukitzeko eskubidea bermatu nahi zaie proiektuaren bitartez, eta hartara uholdeak (San Roque haitzartetik etorritako harri eta lokatz oldeak) izateko arriskua gutxitzea Lehenengo fasean, besteak beste Gasteizko Udalarren finantziazioa zela medio, auzo barruko euri uren kontrola gauzatu zen.</p> <p>Bigarren faseko berriazko bi helburu zehaztu dira: alde batetik, San Roque haitzarteko urak bideratu eta mendean hartzea, auzoaren sarreran, eta bestetik, berriz, haitzarteko mikroarropa babestea, berriazko basoberritze plan baten bitartez.</p>				

Kodea	Izena	Herrialdea	GGKE	2008ko diru-laguntza
08-A-04 ELS	<b>Sexu eta ugalketa osasunaren alorreko eskubideak, genero berdintasunean, San Roque, Chancala eta El Zapote herrietan</b>	<b>El Salvador</b>	<b>Euskadiko elkarbidea</b>	<b>47.400,00</b>

Herritarren inplikazioa eta kontzientziakzioa areagotzea lortu nahi da proiektuaren bitartez, sexu eta ugalketa osasunaren alorreko eskubideei dagokienean, genero berdintasunean. Lau esparrutan lortu nahi dira emaitzak:

- R.1. Kultura matxistako ugalketa egitura komunitarioak murriztu, sexu eta ugalketa hezkuntzaren alorreko gaiei zabalkundea emanaz.
- R.2. Gazteek sexu eta ugalketa osasunaren inguruan duten heziketa eta kontzientziakzio maila hobetu.
- R.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun handiagoa, sexu eta ugalketa eskubideak genero berdintasunetik jorratzeko.
- R.4. Sexu eta ugalketa osasunaren alorreko prebentzio eta prestakuntza gune bat du populazioak. Famili plangintzarako aholkularitza bulego bat sortuko da, herritarrei sexu bidez kutsatzen diren eritasunen inguruan laguntza emateko. Osasun Ataleko langileak gaituko dira, gai horri dagozkionetan, genero ikuspegia aintzat harturik, eta informazio zabalduko.

08-A-05 ELS	<b>Edateko ura eta saneamendua Usulutango nekazari herrietan</b>	<b>El Salvador</b>	<b>Nazioarteko Elkartasuna</b>	<b>59.600,00</b>
----------------	--	--------------------	--------------------------------	------------------

Edateko hura hornitu eta banatzeko zerbitzu publikoak sendotu nahi dira proiektuaren bitartez, baliabide hori merkantzia bihurtzeko interesei aurre eginez, eta hartara herritarren osasungarritasun egoera hobetu.

Ur eta saneamendu azpiegiturak eraikitzea dago aurreikusita. Orobat egingo dira prestakuntza jarduerak: batetik, herritar guztiei zuzenduak, segurtasun eta higiene neurrien inguruan, eta bestetik, berriz, instalatutako ur sistema modu komunitarioan kudeatzen duten erakundeak sendotzera zuzenduak.

08-A-06 GAM	<b>Gambiako Nyammanari, Sare Handen, Diabugu, Basillah eta Madinayel herrietako abeltzainen prestakuntza</b>	<b>Gambia</b>	<b>Haurren eta gazteen aldeko IZAN elkarte</b>	<b>42.900,00</b>
----------------	--	---------------	--	------------------

Behi eta ardi azienda duten abeltzainen produktibitatea hobetu nahi da proiektuaren bitartez, pobrezia gainditu eta diru-sarrerak sortzeko, baita janari-nahikotasuna bermatu ere. 16 sustatzailerri (herri bakoitzeko lau) zuzendutako prestakuntza plana hartzen du bere baitan. Kudeaketa bukatzen denean, sustatzaile horiek lagunduko diete abeltzainei beren aziendak kudeatu eta zaintzen. Herri bakoitzerako albaitaritza botikinak eta ganadu-buruak erostea aurreikusten da. Gainera, ekoizleen antolakuntza sendotu nahi da, elkarte baten inguruan.

08-A-07 HON	<b>Nutrizio osasunaren sustapena, Hondurasko Atlantiko kostaldeko herri garifuna eta nezakarietan</b>	<b>Honduras</b>	<b>PROCLADE Euskadi</b>	<b>26.500,00</b>
----------------	---	-----------------	-------------------------	------------------

Desnutrizio egoeran dauden haurren eta GIB-HIESa duten pertsonen nutrizio baldintzak hobetzen lagundu nahi da proiektuaren bitartez. Horretarako, alde batetik haurren eta GIB-HIESa duten pertsonen nutrizio premiei erantzun nahi zaie, eta bestetik, berriz, herritar guztiei prestakuntza eskaini, elikadura ohitura osasungarrien inguruan. Azkenik, herri antolakundeek osatuko duten nutrizio sare bat eratu eta sortzea aurreikusten da.

Kodea	Izena	Herraldea	GGKE	2008ko diru-laguntza
<b>08-A-08 IND</b>	<b>Zientzia eta teknologiarako atea, Dang barrutiko Ahwako tribuetako ikasleentzat</b>	<b>India</b>	<b>Vedruna elkartasun elkarte</b>	<b>33.900,00</b>
<p>Ikastetxe bat informatika, kimika eta fisika laborategiez hornitzean datza proiektua. Gainera, argi, gas eta ur instalazioak egingo dira laborategi horiek jarriko diren ikastetxe horretako hiru ikasgeletan.</p> <p>Zientziak ikasteak aukera bat eskaintzen die bertako herritarrei, lanbide aukera hobek izateko eta unibertsitatera joateko. Egin nahi den obra 2007ko abenduan bukatu zen beste proiektu baten jarraipena da, ikastetxeko hiru ikasgelak eraiki baitziren orduan.</p>				
<b>08-A-09 IDS</b>	<b>Famili mailako nekazariei merkatuetara iristeko aukera ematea</b>	<b>Indonesia</b>	<b>Munduko Nekazaritza Funtza</b>	<b>53.500,00</b>
<p>Indonesian kalte handiak jasan dituzte nekazari txikiak, merkataritza librearen alorrean sinatutako zenbait hitzarmenen kariatz. Tomateak usteldu egiten dira zenbait landetxe txikitara, atzerritik ekarritako beste tomate merkeago batzuk merkaturatzearen ondorioz.</p> <p>Proiektu honen helburua nekazarien marketing egitura hobetzea da, oinarritzko produktueta oinarritutako merkaturatze estrategia eraginkor baten bitartez, hornitzaile eta kontsumitzaileen arteko harremanak direla medio.</p>				
<b>08-A-10 NIC</b>	<b>Herri eta udal espazioak sendotu, haur trafikoaren alorrean, gai hori lan agenda eta planetan sartuz</b>	<b>Nikaragua</b>	<b>Save the Children fundazioa</b>	<b>59.600,00</b>
<p>SC España erakundeak haur trafikoaren gaia Erdialdeko Amerikan lantzeko definitu duen eta AECID hitzarmenean zehaztu den strategiaren parte da proiektua: "Gobernu erakundearen eta gizarte zibilaren gaitasunak sendotzea, haurrak eta nerabeak modu integralean babesteko, haurren trafikoan bereziki eraginez, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras eta Nikaraguan (lau urte)". Herri eta udal espazioak sendotzea du helburu, haur trafikoari dagozkionetan. Emaizta bikoitza espero da:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prebentzio eta babes alternatiben bila diharduten udal erakundeak sendotzea.</li> <li>• Komunitateko erreferentziako pertsonen gaitasunak sendotzea, beren herri eta udalerrietan haur trafikoari aurre egin eta haurrei babesa eman diezaieten.</li> </ul>				
<b>08-A-11 PER</b>	<b>Emakume interetnikoaren parte-hartzea, prestakuntza soziolaboraleko zentro batean: Hogar San José, Alto Amazonas Peru)</b>	<b>Peru</b>	<b>ADECO (Adiskidetasuna, Garapena eta Lankidetz)</b>	<b>39.700,00</b>
<p>Hauxe da proiektuaren berriazko helburua: jostintza, eskulangintza eta sukaldaritza trebetasunak irakastea hainbat kulturatako neska eta nerabeei, prestakuntza soziolaboraleko zentro batean, hartara duintasunez eta berdintasunean aurrera egin dezaten etorkizunean.</p> <p>Horretarako, prestakuntza zentro bat ezarri nahi da, hiru lantegitarako tresna eta materialekin: jostintza, eskulangintza eta sukaldaritza. Urte osoan eskainiko zaie prestakuntza horietan emakumezko gazteei. Prestakuntza eskaintzeaz batera, hainbat produktu egin eta herriko nahiz eskualdeko merkatuetan saltzea aurreikusten da. Lortzen dituzten diru-sarrerekin, beren egonaldien gastuei aurre egiten lagunduko dute gazteek. Jasotako prestakuntza egiaztatuko duen agiri ofizialen bat kudeatzea aurreikusten da.</p>				
<b>GUZTIRA</b>				<b>500.000,00</b>



## 02.4 Giza eskubideak babesteko deialdia

Garapenerako laguntzaren alorrean lan egiten hasi zenetik bultzatu izan ditu Gasteizko Udalak giza eskubideak babesteko programak.

Laguntzak mugatuak izaki, osotasun fisikoa arriskuan zuten pertsonak babestea eta laguntzea helburu zuten ekintzetarako bakarrik eman ohi zen laguntza hasiera batean. 2006. urtean komenigarritzat jo zen mundu osoan beren eskubideak maiz bortxatuak ikusi ohi dituzten hiru multzotara zabaltzea laguntzak: emakumeak, haurrak eta espetxeratuak. 2008an, deialdiaren hasierako diru zuzkidura 160.000,00€-koa izan zen. Aurkeztutako proiektuak aztertu ondoren, 40.774,95 € gehitu zitzaizkion, finkatutako puntuaziora iritsiak ziren guztiak onetsi ahal izateko. Hartara, 200.774,95 €-koa izan zen deialdiaren zuzkidura, guztira.

Ohiko babes eta laguntza jardueraz gain, beste hauek ere aintzat hartu ziren deialdiaren oinarrietan:

- Emakumeen eskubideak urratzearen kontrako borrokan aritzeko jarduera programak:
  - emakumeen kontrako diskriminazioaren inguruko adierazpenak,
  - genero indarkeria: bortizkeria fisikoa nahiz psikologikoa, emakume eta neska trafikoa...
- Haurrak babesteko eta haiek artatzeko programak.
- Laguntza espetxeetan: laguntza osoa, lege aholkularitza, osasun-laguntza eta psikologikoa, hezkuntza.

Horretaz gain, deialdi honekin, egoera horiei, gertatzen diren testuinguruei, gertatzeko arrazoiei eta alderdiei nahiz konponbidea lortzen lagundu dezaketen ekintzei buruzko informazio eta sentsibilizazio lanean lagundu nahi da.

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira
8	6	264.142,21 €	200.774,95 €



Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

Kodea	Izena	Herraldea	GGKE	2008ko diru-laguntza
<b>08-DH-01 COL</b>	<b>Kolonbian giza eskubideen eta lekuz aldatutako pertsonen defendatzaileak babesteko nazioarteko laguntza</b>	<b>Kolonbia</b>	<b>Pake Brigada Internazionalistak (PBI)-Gasteiz</b>	<b>30.000,00</b>
Nazioarteko 34 begirale hainbat eskualdetan banatu eta mantentzea, giza eskubideen babesleak eta lekuz aldatu beharrean egokitu diren herritarrak babesteko eta ehun psikosoziala berregiteko.				
<b>08-DH-02 NIC</b>	<b>Arriskuan dauden haurrak eta nerabeak eta haur trafikoaren biktimak babesteko sistema sendotzea San Carlos (Río San Juan departamentua) eta Rivas (Rivas departamentua) udalerrietan.</b>	<b>Nikaragua</b>	<b>Save the Children fundazioa</b>	<b>39.998,22</b>
Udal maila sendotzea, biktimak sorterriratu eta arreta eskaintzeko funtsa sortuz eta herri eta udal mailako babes eta prebentzio sareak sendotuz.				
<b>08-DH-03 AFG</b>	<b>Gerraren biktima diren emakume afganiarrak: duintasunaren alde eta zigorgabetasunaren kontra</b>	<b>Afganistan</b>	<b>Fórum Feminista María de Maeztu, Asociació per als Drets Humans a l'Afganistan (ASDHA) elkartearekin partzuergoan</b>	<b>38.655,00</b>
Gudaldi eta etnia desberdinetako gerra biktimen bi batzorde sortzea (70 emakume), beren arteko batasuna eta elkartasuna sustatzeko. Eskubideei buruzko prestakuntza eta laguntza psikologikoa ere jasoko dute.				
<b>08-DH-04 CDM</b>	<b>Bakea eraikitzea eta gerra haurren giza eskubideak berreskuratzea, Buakén</b>	<b>Boli Kosta</b>	<b>Serso Euskalheria</b>	<b>29.039,02</b>
Gatazka armatuaren biktima izan diren adingabeen giza eskubideak berreskuratu eta babestea, heziketa, lanerako prestakuntza, osasun sorospena eta elikadura eskainik.				
<b>08-DH-05 COL</b>	<b>Nariñoeko Eperara-Siapidaara herri indigenaren komunitateak eta liderrak babestea</b>	<b>Kolonbia</b>	<b>Mundubat fundazioa</b>	<b>39.430,26</b>
Siapidaara herriko liderrentzako eta komunitateentzako giza eskubideen eta autobabesaren alorreko ekintza plan bat garatzea, maila lokalean prestakuntza eskaini eta erakunde nazionalen nahiz nazioartekoen aurrean agerian jarri eta salatuz.				
<b>08-DH-06 PAL</b>	<b>Atxilotu politikoei eta haien familiei laguntza legala ematen jarrai dadin laguntzea, Israelen eta Palestinako lurralde okupatuetan, Erdialdeko Ekialdean</b>	<b>Lurralde palestinarrik</b>	<b>Nazioarteko Elkartasuna</b>	<b>23.622,47</b>
Atxilotu palestinarrentzako laguntza juridikoa, familientzako aholkularitza, epaketak prestatzea eta giza eskubideak urratu diren kasuak biltzea, nazioarteko erakundeetara helarazteko.				
<b>GUZTIRA</b>				<b>200.744,97</b>

## 02.5 Saharako herriarekiko lankidetza eta elkartasuna

Saharako herriarekiko urteko lankidetza eta elkartasun programa 1995ean RASDaren Lagunen Elkartarekin sinatutako hitzarmenaren baitan sartzen da.

Hona 2008kotik nabarmendu beharrekoak:

- osasunaren alorreko espezializazio handiagoa,
- janari laguntza handitu egin zen, kanpamenduetan arlo horretako egoerak okerrera egin baitzuen,
- identifikazio bat egin zen (Erizaintza Eskolari laguntzeko programetarako eta ospitale eta osasun zentroak mantentzeko)
- Saharako herriarekin zerikusia duen garapenerako hezkuntzaren alorreko lan bati ekin zitzaion hirian, berriazko materialen ekoizpena barne.



Argazkia: MIKEL ARRAZOLA

Kodea	Proiektua	€
<b>08-SA-01</b>	<b>Saharako herritarrentzako osasun programa</b>	<b>44.000,00</b>
Otorrinolaringologia eta oftalmologiaren alorreko kirurgi misioa, eta ospitale nazionala suntsikorrez hornitzea.		
<b>08-SA-02</b>	<b>Erizaintzaren irakaskuntzarako pedagogi berrikuntza eta laguntza</b>	<b>20.390,00</b>
Hirugarren ikasturterako ginekologia eskuliburua egin eta maketatzea. Gaixotasun nagusien sorospen komunitariorako gidak egitea. Ikasleei tutoretza eskaintzea. Tutoretza, praktikaldian ari diren hirugarren ikasturteko ikasleekin. Eguzki energiaren instalazioak onik zaindu eta konpontzea. Eskola janariz hornitzea.		
<b>08-SA-03</b>	<b>Ospitale eta osasun zentroak mantentzeko programa</b>	<b>16.175,00</b>
Kanpamenduetako ospitale eta osasun zentroetako mantentze zerbitzuaren funtzionamenduan (langileria eta protokoloak), prestakuntzan eta hornikuntzan laguntzea.		
<b>08-SA-04</b>	<b>SEBN sendotzea</b>	<b>11.500,00</b>
SEBNrentzat ibilgailu bat eta kudeaketa sistema bat erostea, eta ibilgailuak onik zaintzea.		
<b>08-SA-05</b>	<b>Janari-laguntza</b>	<b>84.721,95</b>
Saharako Ilgora Gorriak oinarrizko zenbait janari (dillistak, azukrea, irina eta abar) erostea Aljeriako merkatuan.		
<b>08-SA-06</b>	<b>Zerbitzu publikoetako pizgarrien sistemari laguntzea (%5)</b>	<b>9.220,00</b>
Gasteizko Udalaren ekarpena, hasiera batean, hogeitun langile dituen Lankidetzeta Ministerioko langileei pizgarriak emateko baliatuko da.		
<b>08-SA-07</b>	<b>Identifikazioa</b>	<b>7.660,00</b>
"Erizaintza eskola" eta "Ospitale eta osasun zentroyen mantentzea" proiektuen baitan hiruzpalau urterako lana identifikatu eta planifikatzea.		
<b>08-SA-08</b>	<b>"20 años construyendo un sueño" liburua</b>	<b>21.370,51</b>
"20 años construyendo un sueño" argazki liburuaren 1.000 ale argitaratu eta zabaltzea, La Guerra daira eta Gasteiz hiria senidetu zirenetik hogeitun urte betetzen zirela eta.		
<b>08-SA-09</b>	<b>Garapenerako hezkuntza</b>	<b>18.712,54</b>
Sahararen inguruko garapenerako hezkuntzako proiektu baterako materialak lantzea eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan jarduerak abiaraztea.		
<b>Zeharkako kostuak</b>		<b>16.250,00</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>250.000,00</b>

## 02.6 Euskal fondoarekiko hitzarmena

Euskal Fondoaren urteko programa Euskal Fondoa - Asociación de Entidades Locales y Forales Vascas Cooperantes elkartearekiko hitzarmenaren baitan sartzen da, erakunde horretako kide baita Gasteizko Udala.

Proiektu guztiak aurreko proiektuen jarraipen dira. Habana Zaharreko Belengo komentuko oftalmologia laborategia hornitzeko emandako laguntza ekonomikoaren munta handia nabarmentzen da.

Kodea	Proiektua	Herrialdea	€
08-EF-01 CUB	Hirugarren adinekoentzako gizarte zerbitzuei laguntzea, Habanako hirigune historikoan	Kuba	183.219,28
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garai bateko Belengo komentuan optika zerbitzua tresna eta ekipamenduz hornitzea.</li> <li>• Aguiar 509 eraikina hirugarren adinekoentzako arreta zentro integrala izateko eraberritu eta hornitzeko proiektua diseinatzea.</li> <li>• Truke eta lankidetzeta programa bat diseinatzea, Gasteizko eta Habana Zaharreko hirugarren adinekoen zerbitzuen artean.</li> </ul>			
08-EF-02 GUA	450 m kale eraberritzea, hirigunean. Fray Bartolomé de las Casas	Guatemala	79.741,60
Fray Bartolomé de las Casas herriko kale nagusiaren 450 m konpontzea.			
08-EF-03 ELS	Berdintasun eta demokrazia handiagoko udalerrak eraikitzen. IV. fasea.	El Salvador	21.044,83
Genero berdintasunerako udal atalen eta horien programan funtzionamenduari eusten lagunduko du proiektuak, Cuscatlán departamenduko lau udaletan, eta halako beste lau atal abian jartzen.			
08-EF-04	EHUaren praktikaldi programa	Hainbat herrialde	5.000,00
Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat fakultate eta unibertsitate eskolotako ikasleek Euskal Autonomia Erkidego GGKEek kudeatutako lankidetzeta proiektuetan praktikak egitera bideratutako programa.			
<b>Bazkide kuota</b>			<b>10.994,29</b>
<b>GUZTIRA</b>			<b>300.000,00</b>

## 02.7 Agadirrekiko (Maroko) hitzarmena

Lau urteko hitzarmen bat da, Euskadiko Tierra de Hombres, Marokoko TdH eta gizarte zerbitzuak kudeatzen dituzten Agadirreko bi elkarterekin –Oum El Banine eta Ard Al Atfal–2007an sinatua. Bi helbururekin proposatu zen hitzarmena: batetik, Agadirren programa horietan laguntzea, eta, bestetik, udaleko gizarte zerbitzuen eta Agadirreko gizarte sektoreko langileen arteko trukeak erraztea (bai Agadirreko zerbitzuak, bai gure hirian etor-kin magrebiarrei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko).

Urteko lehenengo lau hilabeteetan 2007an onetsitako programan aurreikusitako trukeak egin ziren: bi misio Gasteizen (2008ko urtarrilean eta apirilean) eta bat Agadirren (2008ko martxoan). Nabarmentzekoak dira, bate- tik, udaleko gizarte langileek eta profesional marokoarrek

etorkinen artean gertatzen diren egoerarik ohikoenen in- gurukoak jorratzeko izandako hartueman profesionalak, eta bestetik, berriz, Gizartegintza Sailak Agadirreko Oum El Banineko haurtzaindegiaren eta ama ezkongabeen etxearen zerbitzuak hobetzeko emandako laguntza.

Gasteizen izandako trukeen kostua 3.572,76 eurokoa izan zen, eta 2008ko 2. kapituluko aurrekontu partiden kontu- ra joan zen.

2008ko maiatzetik 2009ko urtarrilera arteko tartea har- tzen du ekarpenak. Gasteizko elkartrukea 2009ko otsaila- ren 2tik 9ra bitartean egin zen.

Kodea	Erakunde arduraduna	Proiektua	€
<b>08-AGA-01 MAR</b>	<b>Ard al Atfal</b>	<b>Haur neskameen prestakuntza, ahuldade egoeran dauden adingabeen eskolaratzea sendotzea eta emakumeak alfabetatzea</b>	<b>13.786</b>
Eskola laguntza emateko programa, Agadirreko industria auzoan, eta haur neskameen lanaren prebentziorako proiektua, Agadirretik gertuko bi herrixkatan.			
<b>08-AGA-02 MAR</b>	<b>Oum El Banine</b>	<b>Ama bakarrentzako arreta eta sentsibilizazioa: harrera etxea eta haurtzaindegia</b>	<b>22.767</b>
Programaren eta ama ezkongabeentzako harrera etxearen eta haurtzaindegiaren funtzionamendua.			
<b>08-AGA-03 MAR</b>	<b>Tdh Maroc</b>	<b>Elkarteen plangintza, lana, kudeaketa eta jarraipena sendotzea eta horretarako laguntza ematea</b>	<b>8.948</b>
Marokoko Tierra de Hombres elkarteak Ard Al Atfal eta Oum El Banine elkarteei prestakuntza eta aholkularitza teknikoak eta administratiboa eskaintzea.			
<b>Gasteizera bidaiatzearen kostuak</b>			<b>2.500,00</b>
<b>Gasteizko egonaldiaren kostuak</b>			<b>3.410,00</b>
<b>Zeharkako kostuak</b>			<b>4.589,00</b>
<b>GUZTIRA</b>			<b>56.000,00</b>

## 02.8 Larrialdietarako arabako funtsa

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Kutxak jarri zuten abian Larrialdietarako Arabako Funtsa 2005. urtean, garatzen ari diren herrialdeetako larrialdi egoeretan esku hartzeko aukera emango zuen tresna arin eta eraginkor bat izateko asmoz.

Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak larrialdietarako jartzen dituzten diru-kopuruak Vital Kutxa fundazioaren barruko kontabilitate-kontu batean jasota geratzen dira, horiek noiz gertatuko. Hartara, esleitzeko erabakia onetsi bezain laster ordaintzen ditu laguntzak Vital Kutxak.

KODEA	LARRIALDIA	HERRIALDEA	GKE	EKARPENA
08-FAE-01-ECU	Uholdeak	Ekuador	Euskal elizbarrutietako misioak	20.000,00
08-FAE-02-MYA	Nargis zikloia	Myanmar	Save the Children	60.000,00
08-FAE-03-HAI	Ike urakana	Haiti	SERSO San Viator	53.142,33
08-FAE-04-CUB	Ike urakana	Kuba	Habanako Oficina del Historiador	40.000,00
08-FAE-05-HON	Atlantikoaren kostaldeko uholdeak	Honduras	PROCLADE Euskadi	60.000,00
08-FAE-06-COL	Tolimako uholdean	Kolonbia	Kolonbia Euskadi elkarte	60.000,00
<b>GUZTIRA</b>				<b>293.142,33</b>

Hauxe izan zen udalak Larrialdietarako Arabako Fondoari egindako ekarpena:

<b>Larrialdietarako Arabako Funtsa</b>	<b>183.055,28 €</b>
--	---------------------

### El Salvadorrera materiala bidaltzea


STEE-EILAS sindikatuak hiriko ikastetxeetan jasotako liburukak eta jostailuak El Salvadorrera –Nejapa herriko liburutegira eta Suchitotoko nekazaritza eremuko bi eskolara– bidaltzeak sortutako gastuei aurre egin zitzaizen. 1.755,42 € baliatu ziren horretarako.

## 02.9 Gasteizko udalaren lankidetzaren datu nagusiak

### Lankidetzaren eta gizaldeko ekintza

Datua hauetan bereizita daude RASDaren Lagunen Elkartearen lankidetzaren programaren baitako proiektuak, gizaldeko laguntza baitira. Saharako hitzarmeneko identifikazio proiektuak lankidetzaren barruan sartu dira.

LANKIDETZA ETA GIZALDEKO EKINTZA (2008ko diru-laguntzak)



■ Lankidetzaren  
■ Gizaldeko ekintza, larrialdiak eta giza eskubideak

Lankidetzaren	1.833.027,58 €
Gizaldeko ekintza, larrialdiak eta giza eskubideak babestea	512.522,20 €
<b>Guztira</b>	<b>2.345.549,78 €</b>

Azpimarratzekoa da gizaldeko ekintzetara bideratutako aurrekontuaren gorakada, zein hiru gorakada hauen ondorio baita:

- Larrialdietarako Arabako Fondoari egindako ekarpenen izandakoa,
- Saharako errefuxiatuentzako janari laguntzan izandakoa,
- giza eskubideak babesteko deialdian izandakoa.


### Herrialdeen arabera banaketa

Ez ditugu banaketa geografikoan sartu larrialdiko laguntzari dagozkion datuak, batetik izan litezkeen larrialdietarako egiten delako ekarpena (horregatik, 2008ko funtsen parte bat oraindik erabili gabe dago), eta, bestetik, emandako laguntzak Larrialdietarako Arabako Funtsa osatzen duten hiru erakundeei dagozkielako. Orobat bazter utzi ditugu Euskal Fondoaren zeharkako kostuak. Beraz, lankidetzaren ekintzei, gizaldeko laguntzari eta giza eskubideak babesteko ekintzei baino ez dagozkie ondorengo datuek.

Ohiko sakabanaketa ageri da (21 herrialdetarako eman ziren diru-laguntzak), eta aldakuntza handia, aurreko urteetako datuen aldean. 2003ko eta 2007ko hainbat urterako deialdien artean izandako norako-aldakuntzei zor zaie hori nagusiki.

Herrialdea	€
Israel / Palestina	23.622,47
Boli Kosta	29.039,02
India	33.900,00
Gambia	42.900,00
Kamerun	49.400,00
Indonesia	53.500,00
Maroko	56.000,00
Afganistan	78.855,00
Guatemala	79.741,60
Argentina	84.983,73
Nikaragua	99.598,22
Ekuador	107.268,23
Ekuatore Ginea	108.061,89
Kolonbia	116.730,26
Txad	123.861,00
El Salvador	128.044,83
Honduras	143.392,87
Kuba	183.219,28
Peru	196.695,83
Bolivia	202.769,03
RASD	209.916,95






## Geografi eremuen arabeko banaketa

Lehenengo aldiz, urte askoan, Erdialdeko Amerikaren eta Karibearen eremuak galdu egin du lehen tokia, diru-laguntzen hartzaileen zerrendan, eta nolabaiteko gorakada izan da Saharaz behetiko Afrikan eta Asian.

Eremu geografikoa	2008 (€)
Erdialdeko Ekialdea	23.622,47
Asia	166.255,00
Saharaz behetiko Afrika	245.200,02
Magreba	265.916,95
Erdialdeko Amerika eta Karibea	633.996,80
Hegoamerika	816.508,97

LANKIDETZA ETA GIZALDEKO EKINTZA (2008ko diru-laguntzak)



## 02.10 Balioespena

2008. urteari dagokionez, alderdi hauek hauek nabarmen daitezke:

- Beste urte batzuen aldean, hazkunde handia izan zuten larrialdietara, gizaldeko laguntzara eta giza eskubiak babestera zuzendutako funtsek.
- Lau urteko konpromisozko kredituak medio hainbat urterako lankidetza proiektuetarako diru-laguntzak emateko hirugarren deialdiaren ebazpena uste baino zailagoa gertatu zen. Horren ondorioz, ez zen baliatu deialdirako zegoen diru-kopuru osoa, diru-laguntzak emateko.
- Sektore jakin bateko udal teknikari espezializatuek proiektuen ebaluazioan parte hartu izana berme garrantzitsua izan zen, proiektuen bideragarritasun teknikoaren balioespenari zegozkionetan.
- Tierra de Hombres erakundearekin eta Agadirreko bi elkarterekin 2007an sinatutako hitzarmena fruituak ematen ari da: batetik, teknikari marokoarren lankidetza, Gizartegintza Saileko gizarte langileen eta bestelako langileen prestakuntzan, eta bestetik, berriz, Agadirreko zenbait zerbitzuren hobekuntza, egin diren elkartrukeen ondorioz.
- Larrialdietarako Arabako Funtzaren jardunbidea arina eta eraginkorra suertatu da. Hobetu beharreko alderdiak, nagusiki, hiru erakundeen justifikazio bateratuen ingurukoak dira.
- Proiektuak identifikatzeko alde zurreratik egindako inbertsioa, hainbat urterako proiektuetarako deialdian ohia dena, RASDaren Lagunen Elkartearrekiko hitzarmenera zabaldu zen.

# 03

## SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

Garapenerako laguntzaren alorreko jarduerak abian jarri zituenez geroztik, beti uste izan du Gasteizko Udalak laguntza horren jomuga nagusietako bat elkartasunaren kultura sustatzeak izan behar duela. Horrenbestez, sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorrean GGKEek egiten duten lanerako laguntza ematen du, berariazko diru-laguntza deialdien eta hitzarmenen bitartez, eta orobat ematen du laguntza Lankidetzaren Kontseilutik bultzatzen diren jardueretarako eta tokian tokiko proiektukideek hirira egiten dituzten bisitaldien ondorioz sortzen direnetarako.

### 03.1 Deskribapena, helburuak eta azpi-programak

Sentsibilizazioaren eta garapenerako hezkuntzaren alorreko jardueretarako eta unean uneko bestelako informazio eta zabalkunde jardueretarako diru-laguntzak onestea eta horiek finantzatzea, baita Lankidetzaren Kontseilutik edo lankidetzaren programetako tokian tokiko proiektukide edo bazkideekiko elkartruketik sortuak ere.

Garatzen ari diren herrialdeetako herriekiko elkartasunaren kultura sustatzen laguntzea.

Azpi-programak –bai sentsibilizazio lana bideratzeko berariazko deialdi eta hitzarmenak, bai Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak arlo horretan bideratutako jardueramultzoak– honako hauek izan ziren:

Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, 2008
Urteko sentsibilizazio deialdia
Garapenerako hezkuntzako deialdia
GGKEen koordinakundearekiko hitzarmena
SETEMen prestakuntza programarako hitzarmena
Mugarik Gabe-kiko hitzarmena (Hegoaldeko argazkigintza eta zinema)
Bakeaz koadernoak, hitzarmena
“Oporrak bakean” programarako hitzarmena
Giza eskubideen karabana
“Lankidetzaren irudietan” argazki lehiaketa
Udalaren informazio eta zabalkunde ekintzak

Diru-laguntza deialdi publikoei eta hitzarmenei buruzko informazio zehatza ematen da ondoren, baita informazioaren, zabalkundearen eta prestakuntzaren arloan udal esparruan 2008an bideratutako beste hainbat jardueri buruzkoa ere. Azkeneko ataletan honako hauek azaltzen dira: Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari bisita egin dioten Hegoaldeko pertsonen zerrenda, sentsibilizazioaren arloa bideratutako aurrekontu osoaren banaketa eta programa horren balorazio labur bat.

## 03.2 Diru-laguntza deialdiak

### Deialdia: "Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako baterako proiektuak finantzatzea"

2008an hainbat urterako deialdi berria egin zen. Aldez aurretik "hainbat urterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia" egin zen 2007. urtean.

Aurreko deialdian bezala, zorrotz identifikatu eta formulatutako xede-talde berarekin modu jarraituan gauzatze-ko hezkuntza proiektuetarako laguntza eman nahi izan zen deialdi horren bitartez.

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira
3	2	112.741,28 €	74.858,22 €



Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

Kodea	Izenburua	GGKE	2008-2009 ikasturteko diru-laguntza
08-EDP-01	“Jolas eta Ekin”	SERSO Euskalherria (partzuergo buru), Gizakien Lurra eta Save the Children	42.049,76
Hezkuntza formalean nahiz ez-formalean garapenerako hezkuntza –haurren eskubideen ingurukoak– bultzatzera bideratutako proiektua.			
08-EDP-02	“Zentzuz Kontsumitu II”	Paz y Solidaridad fundazioa (partzuergo buru), Mugarik Gabe, SETEM Hego Haizea eta Medicus Mundi.	32.808,46
Kontsumo kontziente eta arduratsuaren esparru orokorrean eta bidezko merkataritzaren eta janariaren alorreko burujabetasunaren berariazko elementuetan sakontzera bideratutako proiektua.			
<b>GUZTIRA</b>			<b>74.858,22</b>

## Deialdia: “Gasteizen burutzeko diren nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jarduerak finantzatzen laguntzea”

Gasteiztarren artean elkartasun jarrerak sustatzen dituzten ekintzak bultzatzea du helburu deialdiak. Informazio eta jendea arazoez jabeaztearekin lotutako unean uneko sentsibilizazio ekintzak dira horiek, garatze bidean dauden herrien egungo egoeraren berri izan dezan hartara jendeak, eta herrialde pobre horien eta aberatsen arteko alde handiak bere horretan irautearen arrazoiez

ohar dadin, bai eta batzuk nahiz besteak eraginpean hartzen dituzten arazoaren arteko loturez ere.

Sentsibilizaziorako deialdiaren zuzkidura, 2008. urtean, 40.000,00 €-koa izan zen. Hala ere, 22.150,00 € bakarrik banatu ziren.

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira	Erabilgarri zegoen kopurua
13	9	30.950,00 €	22.150,00 €	40.000,00 €

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

Proiektua	Kodea	GGKE	Diru laguntza (€)
Bidezko merkataritza bultzatuz Araban	08-S-01	Medicus Mundi, SETEM Hego Haizea, SERSO Euskalherria eta elizbarrutiko misio ordezkariaren arteko partzuergoa	2.500,00
Iparra-Hegoa jardunaldiak: Giza garapen iraunkorraren alde	08-S-02	Haurralde fundazioa	2.500,00
Itxaropenerako egun bat. 2008	08-S-03	Intermon Oxfam	2.500,00

Proiektua	Kodea	GGKE	Diru laguntza (€)
Hezkuntza, garapena, teknologia eta lankidetzari buruzko II. jardunaldiak. Lankidetzaren modu berriak: hezkuntza eta informazio eta komunikazio teknologiak	08-S-04	Hegobit Aldea	2.500,00
Kulturen arteko bizikidetzarako taldea (ECI)	08-S-05	ADSIS fundazioa	2.450,00
Beste bazterrean	08-S-06	Arabako Gurutze Gorria	2.200,00
Haur trafikoaren biktima diren haurrak identifikatu eta arreta emateko lan mahaia	08-S-07	Save the Children	2.500,00
Herri indigenak eta multinazionalak	08-S-08	Mugarik Gabe	2.500,00
Zigorgabetasunaren kontrako borroka, Afganistanen: emakumeen lidergoa	08-S-09	María de Maeztu Forum Feminista	2.500,00
<b>Guztira</b>			<b>22.150,00</b>

Kodea	Izenburua	GGKE	2008-2009 ikasturteko diru-laguntza
<b>08-S-01</b>	<b>Bidezko merkataritza bultzatuz Araban</b>	<b>Medicus Mundi, Setem Hego Hazea, Serso Euskalherria eta elizbarrutiko misio ordezkaritzaren arteko partzuergoa</b>	<b>2.500,00</b>
Bidezko Nekazaritzaren Nazioarteko Egunaren inguruan zenbait ekitaldi antolatzea, bai Gasteizen, bai Arabako hainbat herritan.			
<b>08-S-02</b>	<b>Iparra-Hegoa jardunaldiak: Giza garapen iraunkorraren alde</b>	<b>Haurralde fundazioa</b>	<b>2.500,00</b>
Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak elkartu, elkar ezagutu eta trukea egiteko espazioa sortzera bideratutako jardunaldiak, itunak sortzeari begira.			
<b>08-S-03</b>	<b>Itxaropenerako egun bat. 2008</b>	<b>Intermon Oxfam</b>	<b>2.500,00</b>
Aldi berean 47 hiritan ospatuko den elkartasunezko eta parte-hartzezko jaia Aurten, Giza Laguntzan burutzen den lanari eskainiko zaio eguna.			
<b>08-S-04</b>	<b>Hezkuntza, garapena, teknologia eta lankidetzari buruzko II. jardunaldiak. Lankidetzaren modu berriak: hezkuntza eta informazio eta komunikazio teknologiak</b>	<b>Hegobit Aldea</b>	<b>2.500,00</b>
EHUko Arabako Kanpusean izango diren hitzaldi, mahainguru eta ikastaro/lantegiak, garapenerako hezkuntza eta lankidetzaren eremuan IKTak nola integratu diren aztertzeke.			
<b>08-S-05</b>	<b>Kulturen arteko bizikidetzarako taldea (ECI)</b>	<b>ADSIS fundazioa</b>	<b>2.450,00</b>
Balioei buruzko hezkuntza, aniztasuna elementu aberasgarri gisa ikusteko, migrazio mugimenduei bidea ematen dieten arrazoiak, Iparrean eta Hegoaren arteko aldeak abiapuntu hartuta			
<b>08-S-06</b>	<b>Beste bazterrean</b>	<b>Arabako Gurutze Gorria</b>	<b>2.200,00</b>
Etorkinek haien herrietan bizi izan duten egoera agerian uzten duen erakusketa. Horrekin lotuta bi jarduerak daude: "14 Kilometro" izeneko filma eta hitzaldi bat.			

Kodea	Izenburua	GGKE	2008-2009 ikasturteko diru-laguntza
08-S-07	Haur trafikoaren biktima diren haurrak identifikatu eta arreta emateko lan mahaia	Save the Children	2.500,00
Euskadin haur eta nerabeen salerosketa identifikatu eta arreta eskaini ahal izateko erakundeek dituzten beharrak, baita protokoloa lantzeko aukera ere, aztertzeko profesionalen zuzendutako mahaia.			
08-S-08	Herri indigenak eta multinazionalak	Mugarik Gabe	2.500,00
Kuku Bazar antzerki taldeak antzeztutako lana, atzerriko multinazionalen herri indigenei egiten dizkieten erasoei buruzkoa.			
08-S-09	Zigorgabetasunaren kontrako borroka, Afganistanen: emakumeen lidergoa	María de Maeztu forum feminista	2.500,00
Trantsizio garaiko justiziar buruzko sentsibilizazio kanpaina estatu mailan, zeinek Afganistanen emakumeak buru diren gerraren biktimen mugimendua, sortu berria, aipamen berezia izango baitu.			
<b>GUZTIRA</b>			<b>22.150,00</b>

### 03.3 Lankidetzahitzarmenak

#### SETEM-Hego Haizearekiko hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko

Bidezko merkataritzako kafea erabil zezatela eskatu zien edari beroak saltzeko makinak jartzen dituzten enpresei "gizarte etxe eta kirol instalazioetan edari hotzak, beroak eta bestelako produktuak saltzeko makinak jarri eta usiatzeko lizentziak emateko" egindako azken lehiaketa publikoan Gasteizko Udalak. Hartara, kafea nongoa den adierazteaz gain, argi eta garbi iragarri beharra daukate "Bidezko Merkataritza"koa dela.

SETEM-Hego Haizeak kafearen benetakotasuna bermatzen duten kontrolak eta bidezko merkataritzaren sustapenerako beste jarduerak batzuk burutuko dituela jasotzen duen hitzarmena 2008an luzatu da.

Emaús Gizarte Fundazioa, Bakeaz eta SETEM taldeen proposamenari jarraiki, 2008an hori ere, "Bidezko Merkataritza Euskal Administrazio Publikoetan" izeneko proiektuan parte hartu du Gasteizko Udalak, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren bidez.

Erakunde adierazpena izenpetu zuten, 2008ko apirilean, Udaleko alderdi guztiek (PSE-EE, PP, EAJ-PNV, Ezker Batua-Berdeak eta Eusko Alkartasuna), zeinen bidez Udalak "bidezko merkataritza, garapenean laguntzeko tresna baliagarritzat jo baitzuen, Giza Garapen Iraunkorrerako, genero berdintasunerako, ekoizleen aurrerapen sozial eta ekonomikorako, aberastasuna era bidezkoagoan bantatzeko, ingurumen orekarako eta kulturen errespeturako egin duen ekarpena aitortuta.

Praktikara eramanez, izenpetutako agirian erosteko politika etikoak garatzeko lan plana martxan jartzeko konpromisoa jasotzen da, garapenean laguntzeko eremuan bidezko merkataritza lehentasuna izan eta haren printzipioak herritarren artean zabalduko dituen.



## ATARIKOA

Mundu honetan interkomunikazioa eta interdependentzia gero eta handiagoak dira, distantziak egunez egun laburtzen direla dirudi, baina, hala eta guztiz ere, herrialde aberatsen eta herrialde txiroen arteko tartea gero eta zabalagoa da. Mundu honetan elikadura eta ondasunen ekoizpena nekazarien berebiziko lanaren mende dago, baina, hala eta guztiz ere, landa eremuetan bizi dira eguneko dolar batekin baino gutxiagorekin bizirautean duten pertsona guztien bi heren. Mundu honetan elikadurari eskubide izaera kendu egin zaio, eta salgai huts bihurtu da; hala, nazioarteko merkataritzaren arauak, oro har, eta nekazaritzako merkataritzaren arauak, bereziki, txirotasunetik ateratzeko dituzten aukerak murrizten dizkiete nekazariei, landa eremuei eta lehengaiak esportatzen dituzten herrialde txiroei.

## ADIERAZPENA

VITORIA-GASTEIZKO UDALAK, Bakeaz, Emaús eta Setem Hego Haizea erakundeek aurrera eramaten duten “Bidezko merkataritza euskal administrazio publikoetan” proiektuaren berri izan duela eta honako hauek jakin badakizkiela:

- Txirotasunari aurre egiteko eta giza garapen iraunkorra sustatzeko bide eta tresnak gero eta zabalagoak direla, eta pertsona, elkarte, enpresa, udal eta erakunde orok bere eguneroko jardunean arduraz joka dezan behar dutela.
- Administrazio publikoek eragin handia izan dezaketela merkatuetan, erosketa publikoen bolumena dela medio.
- Administrazioek herrialde behartsuenentzako dinamika mesedegarriagoak sor ditzaketela, Erosketa Publiko Etikoaren irizpideak baliatuz.
- Administrazioek Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak bere egiten badituzte, hori eredu izan daitekeela bai enpresa hornitzaileentzat, bai mota guztietako enpresentzat, bai herritar guztientzat, eguneroko jardunean ingurumenari begira gizartean dagokien ardura bere gain har dezaten.

## BERRESTEN DU

- Munduko txirotasunaren eta desberdintasunaren jatorriei aurre egiteko prozesuetan laguntzeko konpromisoa; hala, bat egiten du txirotasunaren kontra eta Giza Garapen Iraunkorraren alde aritzeko helburua duten mota guztietako ahaleginekin.

## ADIERAZTEN DU:

- Bere nahia dela munduko txirotasunari aurre egiteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko abiarazi diren jarduera guztiak egiaz aberats eta osa daitezen herrialde txiroenekiko eta planetarekiko jarrera eta praktika berrien bidez.
- Bere nahia dela dagokion ardura bere gain hartzea eguneroko funtzionamenduan, bere jarduera eremuan, pixkanaka eta beste ekimen batzuei uko egin gabe, erosketa publikorako irizpide berriak sartuz.

## BERE EGITEN DITU:

- Erosketa Publiko Etikoa, erreferentzia esparrutat, horren barruan txirotasunaren aurka jarduteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko jardura berriak aurrera eramateko, hala nola bidezko merkataritzako produktuak erosketa politiketan sartzea.
- Bidezko Merkataritza, garapenean laguntzeko tresna baliagarritzat, Giza Garapen Iraunkorrerako, genero berdintasunerako, ekoizleen aurrerapen sozial eta ekonomikorako, aberastasuna era bidezkoagoan banatzeko, ingurumen orekarako eta kulturen errespeturako egin duen ekarpena aitortuta.

## ADITZERA EMATEN DU:

- Txirotasunari aurre egiteko eta Giza Garapen Iraunkorra sustatzeko aurrera eramaten dituen jardueren eragina zabaltzeko moduko bideak abiarazi edo sendotzeko konpromisoa; bide horiek Garapenean Laguntzeko ditugun betiko politiken osagarri izango dira, Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren irizpideak gure eguneroko jardunean erabiliz, betiere.

## BERE GAIN HARTZEN DITU:

- Erosketa Publiko Etikoaren irizpideak erabiltzen hasteko jarduerak abian jarri edo sendotzeko konpromisoa, arlo horretarako ildo estrategikoak eta epe labur, ertain nahiz luzerako jarduerak izango dituen lan plan bat taxutuz.
- Erosketa politiketan Bidezko Merkataritzako produktuak sar daitezen bultzatzeko konpromisoa; hain zuzen, Erosketa Publiko Etikorako lehen jardura zehaztetako bat izango da.
- Garapenean Laguntzeari eta Garapen Hezkuntzari dagozkien ildo estrategikoen barruan, Bidezko Merkataritzaren inguruko jarduerak bultzatzeko konpromisoa; horretarako, beharrezko aldatetak egingo dira bai ildo estrategikoetan, bai Garapenean Laguntzeko eta Garapen Hezkuntzarako proiektuak diruz laguntzeko egiten diren deialdietan.
- Herritarrek informatzeko eta sentiberatzeko konpromisoa, Erosketa Publiko Etikoak nahiz Bidezko Merkataritzak txirotasunari aurre egiteko, genero berdintasuna lortzeko eta mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat izateko duten eragin positiboaz.

## Mugarik Gabe erakundearekiko hitzarmena, zinema eta lankidetzari buruzko XIV. erakusketarako

2008an, XIV. Zinema eta Lankidetzaren Erakustaldia izan zen, eta Gibarako (Kuba) Zinema Txiroaren Nazioarteko Jaialdiaren proiektioak izan ziren ikusgai.

Zehazki, ekintza hauek gauzatu ziren hitzarmenaren baitan:

- Gizarte gaiak agertzen dituzten iragarkien nazioarteko lehiaketa.
- Zabalkunde eta sentsibilizazio kanpaina diseinatu, editatu eta banatzea, bi hizkuntzetan, paper birziklatuan eta genero ikuspegia kontuan hartuta.
- Bi kale ekintza, Gasteizen, erakustaldia sustatzeko.
- Argitalpen baten 3.000 ale landu, editatu eta banatzea.
- Hautatutako ikus-entzunezko materialari azpigituluak jarri, kopia egin eta eskualdatzea.
- XIV. Erakustaldia burutu (proiektioak eta bideofo-roak), bost egunez, Guridi zinematan, Arabako kanpusean eta Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan.
- Kubako Zinema Txiroaren Nazioarteko Jaialdiaren zuzendaritzaren, Mugarik Gabe erakundearen eta beste erakunde batzuen arteko koordinazioa.

Gasteizko Udalak hitzarmen horren baitan egindako ekarpen ekonomikoa 21.000,00 eurokoa izan zen.

## EAE-ko GGKE-en koordinakundearen Arabako ordezkariarekiko hitzarmena

Badira zenbait urte Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak EAEko GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkariarekin elkarlanean dihardutela, beren Garapenean Laguntzeko Zerbitzuen bitartez.

GGKEen koordinakundearen (Arabako ordezkariarekin) funtzionamenduan lagundu eta hori sendotzea du helburu 2005. urteaz geroztik izenpetzen den hiruren arteko hitzarmen horrek.

Garatu beharreko ekintza zehatz hauek finkatu ziren 2008ko hitzarmenaren baitan:

- GGKEek ordezkariarekin duten parte-hartzeari eutsi eta sendotzea
- GGKEei laguntzea, beren barne prozesu eta premietan
- GGKEak Gasteizen eta probintzian presente egon daitezkeen laguntza ematea
- GGKEen eta koordinakundearen informazioa kudeatzea
- Baterako sentsibilizazio jarduerak
- Erakundearekiko eta gizarte mugimenduekiko harremanak
- Hedabideetan presentzia edukitzea
- Web orria
- Bulego teknikoaren zerbitzuak eta mantentze lanak

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 33.000 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena ere, berdin, 33.000 eurokoa.

## **“Giza eskubideen karabana. 2008ko ibilbidea” Arabako abokatuen elkargoarekiko hitzarmena**

Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren (EAKN) ekimen hau 20 hiritatik pasa zen, 2008an zehar, eta probintzia bakoitzeko Abokatuen Elkargoaren laguntza izan zuen.

Erakusketa ibiltaria eta interaktiboa da, bisitariak eragin ahal izateko diseinatuak daude espazio guztiak. Giza eskubideen egoerari eta abokatuak horien defentsan duten zereginari buruzko informazioa eman, zabaldu eta kontzientziaztea da erakusketaren helburua. Bost edukiontzi handik osatzen zuten erakustaldia, bakoitza gai baten ingurukoa:

1. Edukiontzia / “Derechos / Desechos Humanos”; giza eskubideak munduan.
2. Edukiontzia / “iLegal”; Atzerritarrak eta etorkinak.
3. Edukiontzia / “Estamos ¿Todos? Bien”; Giza eskubideak Espainian.
4. Edukiontzia / “Con lo que yo te quiero”; Genero bortizkeria.
5. Edukiontzia / “Hazte Oír”; Bisitaria da protagonista, mezua utz eta karabanan dauden abokatuen aholkularitza eskatu ahal baitu.

Edukiontziekin batera, material grafiko lagungarriak egin ziren, baita ikus-entzunezko materiala ere.

Gasteizko Udalak hitzarmen horren baitan egindako ekarpen ekonomikoa 10.000,00 eurokoa izan zen.

## **Bakeaz koadernoak argitaratzeko hitzarmena**

Badira zenbait urte BAKEAZ bakeari buruzko dokumentazio eta ikerkuntzarako zentroak Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarekin lankidetzan diharduela; hain zuzen ere, garapenerako lankidetzaren inguruko hainbat lan argitaratzen ditu, Bakeaz koadernoak izeneko bildumaren baitan.

Urte osorako hitzarmen bat izenpetu zen 2008an, argitalpen hauek egin, argitaratu eta banatzeko:

- Bakeaz koadernoak, 86. zk.: “La liberalización agrícola y el aumento de la inseguridad alimentaria mundial”, Efrén Areskurrinaga.
- Bakeaz koadernoak, 87. zk.: “La encrucijada de Guatemala: regresión autoritaria o democracia participativa”, Andrés Cabanas.
- Bakeaz koadernoak, 89. zk.: “Una visión panorámica de la cooperación descentralizada de las entidades locales”, Carlos Gómez Gil.

Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmen horren baitan, 14.588,55 €koa izan zen.

## “Oporrak bakean” programarako hitzarmena

Duela zenbait urtetik hona, bai Gasteizko Udalak, bai Arabako Foru Aldundiak laguntza ematen dute “Oporrak bakean” programa bideratzen laguntzeko. Horren bitartez, Saharako haurrek –Tindufeko (Aljeria) iheslarientzako kanpamentuetakoek– uda Gasteizen eta Arabako beste herri batzuetan, bertako familiekin pasatzeko aukera izaten dute.

Haurrak hartzen dituzten familien elkarteak (AFANIS) kudeatzen du programa hori 2006az geroztik. 23 neska eta 22 mutik hartu ziren 2008. urtean.

Zehazki, ekintza hauek gauzatu ziren hitzarmenaren baitan:

- Hedabideei proiektua ezagutzera eman.
- Haurrak jasoko zituzten familiak aukeratu.
- Haurrak hartuko zituzten familia berriekin elkarrizketatu eta aholkularitza eman.
- Bilbora hegazkinez iritsi, Tindoufetik.
- Autobusez Gasteizera eraman.
- Haurrak familietan banatu.
- Harrera familiek edozein behar edo arazo izanik ere, laguntza eman.
- Saharako begirale batek parte hartu zuen programan, sortzen ziren behar eta arazoei erantzuten laguntzeko.
- Medikuz azterketa.
- Alkatearen harrera.
- Familiek nahi izanez gero, udan zehar haurrak elkarrekin biltzeko jarduerak antolatu.
- Autobusez Bilbora eraman.
- Tindoufera itzultzea, hegazkinez.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 16.000 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena ere, berdin, 16.000 eurokoa.

## Setem hego haizearen prestakuntza programarako hitzarmena, 2008/2009 ikasturtea

SETEM Hego Haizea GGKEak garapenean laguntzeko bolutarioak prestatzeko bideratzen duen programaren baitan ikastaro teoriko-praktikoak antolatzen dira, zeinetan batez ere gazteek parte hartzen baitute eta garatze bidean dauden herrialdeetako errealitatearekin eta horrek gure gizartearekin dituen erlazioekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko prestakuntza jasotzen baitute. Gainera, GGKE horren lankidetzaren proiektuetakoren batean parte hartzeko aukera dute gazte horietako zenbaitek.

Gasteizen modu jarraituan garatzen den era horretako programa bakarra da, eta ongi betetzen ditu bertan parte hartzen duten pertsonak prestatu, sentsibilizatu eta bolutario gisa lan egiteko aukera emateko helburua.

Horregatik, duela zenbait urtetik hona Gasteizko Udalak laguntza ematen dio, ekarpen ekonomikoaren bitartez. 2008an berrikuntza bat izan zen hitzarmen horren baitan: udalaren Garapenerako Kontseiluari zuzendutako prestakuntza eskaintza.

Zehazki, ekintza hauek gauzatu ziren hitzarmenaren baitan:

- “Hegoaldeko herrien errealitatea” ikastaroa.
  - Munduaren egungo egoeraren alderdi historiko, politiko, ekonomiko eta sozialak.
  - Garapena, lankidetzaren eta elkartasuna.
  - Garapenerako hezkuntza.
  - Hegotik Iparrerako mugimendu sozialak.
  - Gaur-gaurko gaia.
- Gasteizko Udaleko Lankidetzaren Kontseiluari zuzendutako prestakuntza eskaintza.
- Elkartasunerako auzolandegiak:
  - Koordinatzaileen ikastaroa.
  - Auzolandegiak aurkezteko asteburua.
  - “Hurbil zaitez hegoaldera” monografikoa.
  - Herrialdez herrialdeko prestakuntza bilerak.
  - “Eta orain zer?” monografikoa.
- Intranet bat sortzea
  - SETEMen prestakuntza eskaintzaren kudeaketan informazioaren teknologia berriak baliatzeko diseinatze eta gauzatzeko lanak.

Gasteizko Udalak hitzarmen horren baitan egindako ekarpen ekonomikoa 29.000 eurokoa izan zen.

## 03.4 Informazioa, zabalkundea eta prestakuntza

Atal honetan, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak esku-hartzen duen hiru jarduera mota biltzen dira, diru-laguntza deialdi eta hitzarmenetatik at daudenak:

- Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, zuzenean, antolatutako edo burututako jarduerak: udal lankidetzari buruzko informazio jarduerak, sentsibilizatzekoak, argitaratu edo ekoiztutako materialen inguruko prestakuntza edo zabalkundearekin zerikusia dutenak,
- Udalaren beste zerbitzuekin batera burututako sentsibilizazio edo garapenerako hezkuntzaren eremuko jarduerak,
- beste erakunde batzuek bultzatutako kanpaina edo jardueretan laguntza puntuala ematea, diru-laguntza ematea ekartzen ez duenean.

Halaber, nolabait ere, sail honetan sar daitezke Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak GGKEei bitartekoak eskura jartzeko eta laguntzeko egindako kudeatze lanak:

- Urte osorako aurreikusitako jarduerari buruzko informazioa bildu eta GGKEei bidaltzea, urteko agenda antolatzeko.
- Hitzaldiak, ekitaldi publikoak, jardunaldiak eta abar egiteko aretoak eta bestelako materialak uztea.
- GGKEek antolatutako biltzar, jardunaldi eta besteren edukia, egitura eta alderdi logistikoak zehazten laguntzea.

### “Gobernagarritasuna, parte hartzea eta toki garapena Guatemalan: lankidetzaren deszentralizatuaren zeregina” mintegia

Simone de Beauvoir elkartean etxean izan zen mintegi hori, urtarrilaren 18an, eta Gasteizko Udalak antolatu zuen, Euskal Fondoarekin, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Zuzendaritzarekin, Mundu Bat eta PROCLADE elkarteekin batera.

Guatemalan garapenean laguntzen ari diren GGKEen langile teknikoei eta euskal erakundeetan (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza) lankidetzaz arduratzen diren teknikari zein politikariei zuzendua zegoen.

Guatemalako testuinguruaren eta momentuaren zein garapenerako laguntzan garrantzia izan duten esperientzien analisia abiapuntu hartuta, udalerriek parte hartzeko eta toki garapenerako programetan esku-hartzeko orduan dituzten ahuleziak eta gaitasunak aztertu ziren, eremu horretan proposatzen diren garapenean laguntzeko proiektu edo programak hobetzeko irizpideak definitzeko asmoz.

Hizlari gisa aritu ziren Andrés Cabanas, Salvador Quicaín, Alba de la Cruz, Carla Roxana Flores eta Mathias Rull.



Argazkia: NEREA ARANA

## “Lankidetzaren irudietan” IV. argazki lehiaketa

Bi urtean behin egiten den “Lankidetzaren irudietan” argazki lehiaketaren laugarren edizioa antolatu zen Arabako Foru Aldundiarekin batera. 2008ko urriaren 15ean bukatu zen lanak aurkezteko epea.

Oraingo honetan, 2006az geroztik Gasteizko Udalaren eta/edo Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso duten lankidetzaren proiektuen irudiak jaso behar zituzten argazkiek, eta parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bost argazki aurkeztu ahal zituen.

Guztira 52 argazki aurkeztu ziren. Arabako Argazkilarien Elkarteak bi kidek eta GGKEen Koordinakundearen ordezkari batek osatu zuten epaimahaia, eta hiru sari, akzesit bat eta Hegoa sari berezia eman zituen:

Hauexek izan ziren emandako sariak:

- 1. saria, 650 € eta diploma: Nerea Arana Anakabe, “Cultura Kichwa” izeneko bost argazkiko sortagatik. Proiektua: “Hegoaldeko herrien errealitatea” Gasteizko boluntarioak prestatzeko programa. Elkartasunerako auzolanderiak. Lekuak: Chimborazo. Ekuador. GGKE: SETEM HEGO HAIZEA.
- 2. saria, 500 € eta diploma: Nieves Calvo Albín, “Vida en los campamentos de refugiados saharauis durante la ejecución de los proyectos de cooperación” izeneko hiru argazkiko sortagatik. Proiektua: “Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan dagoen erizainen eskolarako berrikuntza pedagogikoa eta laguntza”. Lekuak: Tindoufeko kanpamentuak (Aljeria). GGKE: Arabako SEADen lagunen elkarteak.
- 3. saria, 350 € eta diploma: Ferrer Canata Rojas, “Riegos de voluntad” izeneko bost argazkiko sortagatik. Proiektua: Edateko ura hornitzeko sistema, Chanchajlliko nekazari herrian Lekuak: Chanchajlli (Chuquisaca). Bolivia. GGKE: ADRA fundazioa.
- Akzesita, 150€ eta diploma: Carolina del Ría, “Un retorno a la esperanza” izeneko argazki sortako gizon baten erretratuagatik. Proiektua: Bergizarteratzen laguntzeko programa integrala, Tappitako barrutian. Lekuak: Tappita (Mimba). Liberia. GGKE: Alboan Fundazioa.
- Hegoa saria, 650 € eta diploma: CEDESCO elkarteak, hiru argazkiko sortagatik: “Curichi”, “Secado de coca” eta “Confección redes”. Proiektua: Germán Busch kantoiaren garapen lokalerako lurralde antolakuntza integral, demokratikoa eta parte-hartzailea. Lekuak: Sinaota. Cochabambako departamendua. Bolivia. Tokiko (Gasteiz) GGKE: Paz y Solidaridad.

Argazki guztiekin erakusketa egingo da, 2009ko urtarri-lean, Pilarreko gizarte etxean, bisita gidatu eta garapenerako hezkuntza jarduerekin. Ondoren, eta urte osoan zehar, Arabako hainbat herritan zehar pasako da erakusketa.

Jarduera horiek sortutako gastua 29.074,61 eurokoa izan zen. Kopuru horren barruan lehiaketaren gastua eta erakusketa Gasteizen zein Arabako Lurralde Historikoan aurkezteari dagokiona sartzen da.

## **“Koopera” dokumentala ekoiztea**

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan garapenean laguntzeko proiektuei buruzko 30 minutuko Koopera izeneko dokumentalaren gauzatzea kontratatu zuen. ZINHEZBAK ekoiztu eta Fernando López Castillok zuzendutako dokumentalak errefuxiatuen kanpamenduekiko lankidetzaren protagonisten —boluntarioak, proiektuen tokiko arduradunak— lana eta ikuspuntua helarazten du eta gatazka konpontzeko presioa egin dadin eskatu.

Filma, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, 2009ko hasieran estreinatuko da, eta Udalak 11.018,45 euro gastatu ditu horretan.

## **Gasteizko Udalaren garapenerako lankidetzaren XX. urteurrena**

2008an, hogeitau urte bete zituen Gasteizko garapenean laguntzen. Urteurren hori dela eta, 2008ko abenduaren 15ean, ekitaldi publikoa antolatu zen, Principal antzokian, Udalak lankidetzan eman dituen 20 urteak ospatzeko. Estíbaliz Ruiz de Azúak aurkeztu zuen, eta hainbat artistak zein musikaririk parte hartu zuten, gainera, Luis de Sebastián Ekonomia katedradunaren “Los retos de la solidaridad en tiempos de crisis” izeneko hitzaldia ere izan zen.



Argazkia: QUINTAS

## **Gasteizko Udaleko gazteria zerbitzuarekiko elkarlana**

2008an, garapenerako hezkuntzaren zeharkatze-ildoari jarraiki, Udalaren Gazteria Zerbitzuarekin lankidetzan, udalaren ludoklubetan garapenerako hezkuntzaren programa pilotua eta AzokaTxiki programa berria landu dira.

1. Garapenerako hezkuntzaren programak Udalaren ludoklubetan: Ludoklubak 11 eta 13 urte bitarteko haurrentzako aisialdi eta jolasgune izan nahi dute. Garapenerako hezkuntzaren hainbat kontzeptu landu dira horietan, jarduera dinamiko, parte hartzaile eta jolas-tekoen bidez, eta ondoren, hausnarketa egin da taldeka, landu diren arazo desberdinak aztertzeko.

Programa honekin batera, garapenerako hezkuntzaren inguruko oinarrizko prestakuntza programa burutu da, ludoklubetako begirale taldeari zuzendua, horiek baitira martxan jarriko dutenak.

2. AzokaTxiki Solidarioa: Ikastetxeetan eta gizarte etxee-tako ludoteketan elkartasunarekin lotutako sentsibilizazioa sustatzeko programa da. Sentsibilizazio kanpainan zehar, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek ikastetxeetan jostailu erabiliak —baina inolako akatsik ez dutenak— biltzen dituzte, eta gurasoen laguntzarekin modu onean saldu, azoka txiki batean (aurten abenduaren 13an izan zen, Europa jauregiko kiroldegian). Aurten lortutako dirua Save the Children erakundeak haurren lanari buruz burutzen ari den proiektu batera bideratu da, Nikaragua eta Honduras arteko mugan kokatzen dena. Aurretik gelan eta ludoteketan landu zen proiektua, GGKE horren laguntzarekin.

## Udal kazetan artikuluaK argitaratzea

Garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerekin zerikusia duten artikulua hauek argitaratu ziren Udal Kazetan 2008an:

Udal Kazeta formatuarekin argitaratu zen azkenengo zenbakia 84 izan zen eta 2008ko uztaila-abuztuari dagokio.

ArtikuluaK	Kazetaren zk.	Or.
<b>“Visita de Ibagué”</b> Ibaguéko (Kolonbia) ordezkariak Gasteizera egindako bisitari buruzko informazioa	79	13
<b>“Nueva sede solidaria”</b> Haurralde fundazioaren eta Colombia-Euskadi elkartearen egoitza berriaren inaugurazioa.	80	11
<b>“Comprar con sentido y solidaridad”</b> Zentzuz Kontsumitu izeneko proiektuaren jarduerari buruzko informazioa, besteak beste, bidezko merkataritza eta produktu ekologikoen salmenta burutzen duten establezimenduen kale-izendegia editatzea.	80	19
<b>“20 años construyendo un sueño”</b> Asier Bastidaren argazkiak jasotzen dituen liburua editatzea, Gasteiz eta la Daira de La Güeraren arteko senidetzearen XX. urteurrena dela eta.	80	20
<b>“Yo también soy de la Africanista”</b> Manuel Iradier elkarte afrikanistaren kanpaina, bazkide kopurua handitzeko.	81	4
<b>“Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna”</b> Bidezko merkataritzaren Nazioarteko Egunari eta Udalak horren alde egindako erakunde adierazpenari buruzko informazioa.	82	11
<b>“Nuevos socios para la solidaridad”</b> Manuel Iradier elkarte afrikanistari eta Kogon (Ekuatore Ginea) burutzen ari den proiektuei buruzko informazioa.	82	13
<b>“Abrazo Vasco-Magrebí”</b> Marokoko Agadirrekiko hitzarmenari buruzko informazioa, udaleko gizarte zerbitzuetako profesionalekin esperientziak trukatzeko Marokoko gizarte sektoreko profesionalek egindako bisita dela eta.	82	21
<b>“¿Qué carne comemos?”</b> Zentzuz Kontsumitu izeneko proiektuaren esparruan produktu hori era arduratsuagoan kontsumitzen erakusteko gida argitaratzea.	83	12
<b>“Encuentro interprofesional entre ONGD”</b> Latinoamerikako, Afrikako eta Arabako antolakundeek parte hartu zuten jardunaldiak.	83	13
<b>“Solidaridad plurianual”</b> Latinoamerika eta Afrikako bederatzi proiektuari hiru urterako diru-laguntza ematearen onespenerari buruzko informazioa.	84	6-7
<b>“Miradas de cristal”</b> Hainbat herritako haurren irudiak jasotzen dituen José Luis Manzanedoren, Patxoren argazki liburua.	84	20



## Lankidetzari buruzko udal web-orria

2008. urtean eguneratu eta zabaldu egin zen lankidetzari buruzko udal web-orria ([www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion](http://www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion)); atal berriak sartu ziren, eta edukiak berritu, bai direktorioa, bai jardueren agenda, estekak eta dokumentu interesgarriak eta diru-laguntza deialdiak.

Garapenerako Kontseiluaren atalean organo horri dagokion dokumentazio guztia eskaintzen da. Sentsibilizazio baliabideei buruzko datu basea Hegoak eguneratu zuen 2007an, eta 2008aren hasieran jarri zen udalaren web orrian.

## Bestelako informazio ekintzak eta beste

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2007ko oroit-idazkia argitaratu eta banatu zen 2008an.

Orobat hartu du bere gain Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, ohi denez, udal liburutegietan Federación de Comités de Solidaridad con el África Negra erakundearen hiruhileko UMOYA aldizkaria jasotzeko harpidetzaren kostua.

Boluntariotzaren Eguneko publizitatearen kosteak eta kultur zein sentsibilizatzeko jardueretan Egoiliar Boliviarrak erabiltzen dituzten jantziak eta materialak Boliviatik Gasteizera bidaltzearen gastua ere bere gain hartu zituen.

## 03.5 Lankidetzarako Kontseilua

### Kontseiluaren jarduna

Herritarrek parte-hartzeko sektore kontseiluak bideratutako jarduerak jaso ditugu atal honetan.

Bileraren data	Berlaratuen kopurua	Gai kopurua
otsailaren 27a	29	6
apirilaren 9a (aparteko bilkura)	26	2
ekainaren 11	30	5
urriaren 2a	24	6
azaroaren 25a	24	5

Erakundeek esperientziak aurkezten hasi izana da kontseiluaren osoko bilkuretan aipagarriena. Horietako lehenena Medicus Mundi-ren hainbat urterako proiektuaren aurkezpena izan zen, "Edateko ura eta ingurumen saneamendu iraunkorra" Peruko Andeetako nekazari-herrietan.

Horretaz aparte, udalak garapenean laguntzen eman dituen 20 urteetako balantzea egiteaz eta etorkizunerako orientazioa proposatzeaz arduratzen den lantaldeak lanean jarraitu du.

Hasierako talde batek jarraitu beharreko metodologia ezarri zuen eta hainbat gairen inguruko azterketak egitea erabaki zuen, adituei egiteko agindu zitzaizkienak:

- Gasteizko Udalaren lankidetzaren azterketa egitea.
  - Gasteizko Udalaren lankidetzaren 1998-2008, GKEen koordinakundea - Arabako ordezkariak.
  - Genero berdintasuna, Clara Murguialday.
  - Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza, Miguel Argibay.
  - Bidezko merkataritza eta kontsumo solidarioa, Seta, Emaus eta Bakeaz erakundearen partzuergoa.
  - Lankidetzaren teknika, Aitor Gabilondo.
- Testuinguruaren azterketa
  - "Espainiar nazionalitatea ez duten eta Gasteizen bizi diren etorkinak". Gasteizko Udaleko Ikerketa eta Estatistika Bulegoa.
  - "Una visión panorámica de la cooperación descentralizada de las entidades locales: Reflexiones sobre su papel y su futuro", Carlos Gómez Gil.
  - "Panorámica de las prácticas y tendencias actuales de la cooperación descentralizada pública", Jean-Pierre Malé. Garapen deszentralizatuen behatzea EB-L.
- Gasteizen GGKEen sektoreak izandako bilakaera HE-GOAK egina (jasotzeke dagoena).

Geroago, azterketa horiek berrikusi eta balioesteko talde berri bat osatu da; egin ahala Interneteko berri-talde batean sartu dira azterketa horiek taldekideek irakurri eta iruzkinak egin ahal izan dezaten. Aurrez aurreko bilerak ere burutu dira gaitako bakoitzaren inguruan, 2009an zehar egiten jarraituko dute eta azkenean etorkizunerako proposamenak formulatuko dira.

## Garapenerako Kontseiluaren- tzako ikerketetara bideratutako aurrekontua

UDAL LANKIDETZAREN 20 URTEEN BALANTZEAREN AURREKONTUA		Diru kopurua (€)
Genero berdintasuna		2.000,00
Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza		2.000,00
Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua		1.500,00
Garapen deszentralizatuaren bilakaera		2.320,00
GGKEak Gasteizen		9.280,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>17.100,00</b>

### 03.6 Bisitaldiak

Ohi denez, GGKEen proiektuetan tokian-tokian diharduten erakundeen ordezkarien bisitak izan zituen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, baita lankidetzaren nahiz giza eskubideen alorreko hainbat programarekin zerikusia duten

hainbat herrialdetako udal ordezkari edo pertsona ere. Guztira 39 lagun izan ziren, 35 erakundetakoak.

Hona bisita egin ziguten horien zerrenda:

Data	Izena	Kargua	Erakundea	Herrialdea
17/01/2008	Palwasha Hassan	Sortzaileetako bat	Afghan Women's Network	Afganistan
18/01/2008	Carla Flores	Lehendakaria	CEIDEC	Guatemala
18/01/2008	Pedro Saloj	Alkatea	Sololáko Udala	Guatemala
18/01/2008	Andrés Cabanas	Kazetaria / Ordezkaria	Mugarik Gabe	Guatemala
30/01/2008	Rosa María Alfaro	Erdialdeko Amerikarako aholkularia pertsonen salerosketan	Save the Children	Nikaragua
03/03/2008	Jacob Aguinda	Ikuskatzailea	Pastazako kulturarteko hezkuntza elebidunaren probintzia zuzendaritza (DIPEIBP)	Ekuador
03/03/2008	Alba Castillo	Errektoreordea	Amauta Ñampi Hezkuntza Atala	Ekuador
18 al 20/01/2008	Álvaro Montoya Patiño	Zuzendari betearazlea	Ibagueko garapenerako eskualde agentzia	Kolonia
18 al 20/01/2008	Hugo Rincón González	Ibagueko eskualde zuzendaria	Gizarte fundazioa	Kolonia
19 al 20/01/2008	Clara Inés Carvajal Romero	Tierra Caliente aisia zentroko zuzendaria	Tierra Caliente aisia zentroa	Kolonia
20 al 20/01/2008	Alberto Bejarano Ávila	Ordezkaria eta aholkularia	Tolima Departamentuko Cooperativismo erakundearen ordezkaria	Kolonia
30/04/2008	Marina Gallego	Nazio koordinatzailea	Ruta Pacifica de las Mujeres	Kolonia
23/04/2008	Linda Osareren	Programen arduraduna	IASE (Comité Interafricano contra las prácticas tradicionales)	Burkina Faso

Data	Izena	Kargua	Erakundea	Herraldea
18/06/2008	Ana Lourdes Soto	Idazkari betearazlea	Patrimonio, comunidad y medioambiente, Sociedad Civil	Kuba
	M <sup>a</sup> Jesús Pérez	Zuzendaria	MCCH	Ekuador
30/05/2008	Ana María López Antón	Zuzendaria	Aliadas para el desarrollo	Peru
30/05/2008	Teresa Lanza Monje	Zuzendaria	Católicas por el derecho a decidir	Bolivia
30/05/2008	María Cecilia Vasquez Piña	Mikrokredituen arduraduna	Bajioko emakumeen sarea	Mexiko
30/05/2008	Ana Cecilia García Gonzalez	Emakumeen taldeko abokatu arduraduna	“Boris Vega” bulego herritarra	Nikaragua
30/05/2008	Lidia Verónica Hernández	Lehendakaria eta kudeatzailea	Sol Naciente	Argentina
30/05/2008	Rafa Valente Machava	Zuzendaria	Muleide	Mozambique
30/05/2008	Felix Lisboa Cosa	Probintzi ordezkaria	ORAM-Manica	Mozambique
30/05/2008	Margarita Cecilia Buitrago de Mesa	Legezko ordezkaria	Prosperar fundazioa	Kolonbia
02/07/2008	Genaro Umul	Uraren Udal Bulegoaren koordinatzailea	Sololáko Udala	Guatemala
18/09/2008	Gorki Phorfi Jara Vengoa	Oinarrizko azpiegitura eta zerbitzuen garapenaren arduraduna	ADRA-Perú	Peru
18/09/2008	Ferrer Canaza Rojas	Azpiegituren nazio koordinatzailea	ADRA-Bolivia	Bolivia
23/09/2008	Roger Agüero Pittman	Lehendakaria	SER nekazal eremuko hezkuntza zerbitzuak	Peru
02/10/2008	Marcia Gonzales	Plangintza eta proiektuen arloko arduraduna	CEDESCO	Bolivia
26/09/2008	Carla Flores	Lehendakaria	CEIDEC	Guatemala
26/09/2008	Julio Rodríguez	Zuzendaritzako kidea	CEIDEC	Guatemala
06/10/2008	Javier Humberto Arbeláez Luna	Lehendakari betearazlea	Ibaguéko merkataritza ganbara	Kolonbia
06/10/2008	Jesús María Botero Gutiérrez	Alkatea	Ibaguéko alkatetza	Kolonbia
06/10/2008	Libardo Gutiérrez Díaz	IBALeko teknikaria	Ibaguéko alkatetza	Kolonbia
06/10/2008	Marcela Meñaca	Zuzendari betearazlea	Tolimako garapenerako elkarte (ADT)	Kolonbia
06/10/2008	Carlos Eduardo Tijero Gutiérrez	Aholkularia	Ibaguéko alkatetza	Kolonbia
15/10/2008	Andrea de la Roca	Alkatearen laguntzailea	Guatemalako Udala	Guatemala
07/11/2008	Carlos Coto	Zuzendaria	REDES fundazioa	El Salvador
31/10/2008	Agustín Jiménez Coello	Hainbat erakunderen zuzendaritzetako kidea	Comité de Solidaridad con Presos Políticos de Colombia; Coordinadora Colombia-Europa-EE.UU (190 ONG de DD.HH.); Polo Democráticos, etc.	Kolonbia
10/12/2008	Gloria Gómez eta Paola Medina	Koordinatzaile nagusia (Gloria)	ASFADDES Colombia (Atxilotutako eta desagertutako senideen elkarte)	Kolonbia

## 03.7 Sentsibilizazio programaren aurrekontua

Honela banatu zen sentsibilizazio programara bideratutako aurrekontua:

<b>Sentsibilizazioaren eta Garapenerako Hezkuntzaren alorreko diru-laguntzak</b>	
Garapenerako hezkuntzako hainbat urterako deialdia	74.858,22 €
Urteko sentsibilizazio deialdia	22.150,00 €
GGKEen koordinakundearekiko hitzarmena	33.000,00 €
SETEMen prestakuntza programa	29.000,00 €
Mugarik Gabe-kiko hitzarmena (Hegoaldeko argazkigintza eta zinema)	21.000,00 €
Bakeaz koadernoak	14.588,55 €
“Oporrak bakean” programa	16.000,00 €
Giza eskubideen karabana	10.000,00 €
Argazki lehiaketa	2.300,00 €
<b>DIRU-LAGUNTZAK, GUZTIRA</b>	<b>222.896,77 €</b>

<b>Informazio eta zabalkunde ekintzen eta bisitaldien gastuak</b>	
“Lankidetzaren irudietan” argazki lehiaketa eta erakusketa	26.774,61 €
Garapenerako Kontseiluarentzako ikerketak	17.100,00 €
Dokumentala ekoiztea (Sahara)	11.018,45 €
Abenduaren 15eko ekitaldia: “20 urte garapenean laguntzen”	12.654,35 €
Ludoklubetarako garapenerako hezkuntzako programa bat identifikatzea	5.957,76 €
Guatemalari buruzko mintegia	1.852,50 €
Bestelako sentsibilizazio ekintzak	1.288,00 €
Boluntariotzaren Egunaren publizitatea	1.062,56 €
Boliviako jantzi eta materialak	2.201,47 €
Bisitaldien gastuak	581,55 €
<b>GASTUAK, GUZTIRA (2. KAPITULUA)</b>	<b>80.491,25 €</b>
<b>GUZTIRA, SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA</b>	<b>303.388,02 €</b>

## 03.8 Balioespena

Arlo honetako alderdi adierazgarrien gisa, 2008an aipatu behar dira:

- Udalaren lankidetzaren XX. urteurrena ospatu da, eta horretarako udalak garapenean laguntzen eman dituen 20 urteen balantzea egin eta etorkizunerako orientazioen proposamenak egiteaz arduratu da Garapenerako Kontseiluaren lantalde batek. Era berean, Principal Antzokian, abenduaren 15ean, egin zen ospakizun ekitaldiak, bai bertaratutakoei, bai antolakuntzari dagokionez, lortu zuen arrakasta nabarmendu behar da.
- Udalean ordezkariak dituzten alderdi guztien babesa lortu zuen bidezko merkataritzaren aldeko erakunde adierazpena ere aipatu behar da, horren bidez, Udalak etorkizunean erosteko politika etikoak garatuko dituen lan plana abian jartzeko konpromisoa hartu baitzuen, baita horren printzipioak herritarren artean zabaltzekoa ere.
- Garapenerako hezkuntzaren zeharkatze-ildoak abian jarri da, horretarako udalaren ludoklubetan garapenerako hezkuntzaren programa pilotua eta Azoka Txiki programa berria landu dira Udalaren Gazteria Zerbitzuarekin lankidetzan. Etorkizunean ildo horri jarraitzeko asmoa dago, zerbitzu horrekin eta udaleko beste zerbitzu zein sailekin.
- “Garapen-hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzeko deialdi” berrian GGKEen partzuergoek aurkeztutako bi proiektu berri onetsi dira. Programa honek harrera ona izan du GGKEen artean.



# 04

## JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren lan gehiena honako inguruan burutzen da, sistematikoki:

- aurkeztutako proiektuen alde aurreko ebaluazioa, hots, diruz lagunduko diren edo ez erabakitzeko egiten den balioespena,
- jarraipena, hots, onetsitako proiektuak betetzen direla eta baliabideen erabilera proiektuetan jasotakoaren arabera burutu dela egiaztatzea.

Proiektuetako batzuen kasutan, horren sistematiko izan gabe, honakoak burutzen dira zerbitzutik:

- proiektuen ebaluazioa, normalean bukatuak dauden proiektuena, hots, helburuak noraino bete diren, emaitzak eta eragina balioestea eta ulertzea
- proiektu berriak identifikatzea.

Ondoren, proiektuen alde aurreko ohiko analisitik haratago doan jarraipen eta ebaluazio jarduerak eta txostenen gaineko jarraipena aipatuko ditugu, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak burututakoak dira, eta dagokion aurrekontua banakatzen dugu.



## 04.1 Urteko lankidetzaren proiektuen lehen ebaluazioa

Lankidetzaren proiektuetarako urteko deialdiaren ebazpena arintze aldera, Hegoa EHUaren Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketen Institutua kontratatzea erabaki zen.

## 04.2 Kubako proiektuen jarraipenerako bisitaldia

Habana Zaharrean Hirugarren Adinekoentzako Egoitza Babestua (zainpeko apartamentuak) inauguratu da Habana kaleko 620an, eta horrekin bat, otsailean, Euskal Fondoaren hitzarmenaren esparruaren barruan Habanako Historiagilearen Bulegoak burutzen dituen proiektuen jarraipena egin zen:

- Belen komentuari ekipamendua,
- etxebizitza sozialak eraikitzea Habana 624 eraikinean,
- hirugarren adinekoen zerbitzuak laguntzea.

Eraikuntza proiektuarekin amaitu arteko jarraipen zehatza egiteko protokoloa onetsi zen eta zainpeko apartamentuen funtzionamenduari jarraipena egiteko fitxa diseinatu da.

Ondoren, 07-A-15-CUB proiektura 2007ko (Guantánamo) nekazitza eremu bakartuetako nekazarien etxebizitzak eguzki-argindarrez hornitzea bisita egin zen. Bertan egiaztatzen ahal izan zen eguzki plaken bidez elektrizitatea hornitzeko sistema eraginkorra dela, are gehiago, testuingurua kontuan izanik, non materialen gabezia, administrazio zailtasunak eta garraioaren ahalmen mugatuak, gehi hara heltzeko zailtasunak eta klimatologia, erraztekar dezaketen proiektuaren atzerapena.



### 04.3 Agadirreko proiektuen jarraipenerako bisitaldia

Aipatu den bezala, martxoan, Agadirren izandako elkartrukeak Agadirren hitzarmenaren esparruan lagundutako Oum El Banine eta Ard Al Atfal elkarten zerbitzuen jarraipena egitea ahalbidetu zion Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari.

### 04.5 Uraren alorreko bi proiektu kontratatzea, Guatemalan

Guatemalan uraren inguruan, 2003ko deialdian aurkeztutako zenbait urtetarako bi proiekturen ebaluazio bateratua kontratatzeko prozesua jarri zuen abian Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, 2008ko bukaeran.

### 04.4 Paitarekiko hitzarmenaren jarraipena kontratatzea

2006. urtean Paitako (Peru) probintzi udalerriarekin izenpetutako hitzarmenaren helburu zen ikastetxe batean ikasgelak eraikitzeko proiektua amaitu ez denez, Pariñas elkartearekiko (ADIPE Arabak Perun duen lekuan lekuko GGKEa) kontratua luzatu zen, aipatutako proiektuaren lurzoruaren jarraipena egiteko.

Mundubatek Sololan burutzekoa eta PROCLADE Euskadik Champericon burutzekoa, Guatemala Mathias Rullsi esleitu zitzaion ebaluazio hori, eta 2009ko lehen sei hilabetean egingo da.

Proiektua	Udalerria, Departamentua	Gasteizko GGKE / Bertako GKE	Diru-laguntza, guztira
Edateko ura eramatea Champerico herrira	Champerico, Retalhuleu	PROCLADE Euskadi / CEIDEC	319.500,00 € (3 urte)
Ura eta saneamendua, Atitlán lakuaren goi arroako 18 herritan	Sololá, Sololá	Mundubat / Sololáko udala	416.500,00 € (4 urte)

## 04.6 2008an bertatik bertara egindako bi ebaluazioen emaitzak

2000ko deialdiko hainbat urterako bi proiektu –SETEM Hego Haizearen Curarrehueko (Txile) proiektua eta Proclade Euskadiren Retalhuleuekoa (Guatemala)€bertatik bertara ebaluatzeko lanak Nuria Camps (Avalúa) aholkulariari esleitu zitzaizkion, 2007. urtean.

2008ko lehen hiruhilekoan egin zen ebaluazio hori. Bi proiektuen balioespenak bereizi egin ziren: Curarrehueko proiektuak aurreikusitako helburuak lortu ditu, eta hainbat erakunderekin sinergiak sortzen jakin du (ez, ordea, udalarekin). Bestalde, Las Pilas asentamenduko familiek biziki hobetu dituzte beren bizi-baldintzak, baina FONTIERRAekin (jabetzak erosteko aukera eman zien mekanismoa) duten zorra ere nabarmen handitu da, eta horri aurre egin beharrean daude.

## 04.7 Jarraipena eta ebaluazioa egiteko baliatutako aurrekontua

Ebaluazioa	Kontratutako erakundea	Diru-kopurua (€)
Guatemalako hainbat urterako bi proiekturen ebaluazioa	Mathias Rulls	16.985,00
Paitarekiko hitzarmenaren jarraipena	Pariñas elkarte, Peru	3.315,91
Urteko lankidetzaren proiektuen lehen ebaluazioa	Hegoa	2.436,00
Jarraipen-bisitaldia (Kuba)		2.107,37
Jarraipen-bisitaldia (Agadir)		1.450,83



Argazkia: MIKEL ARRAZOLA